




## Nafarroaren Eguna Baigorriin

45

Urtero bezala apirileko azken igandean egingen da Baigorriin Nafarroaren Eguna, apirilaren 29an. Musika, dantza... Denetarik pres-tatu dute egun horretarako.



## Berako Mendi Maratoi Erdia eta Mendi Itzulia

47

Mendia gustuko dutenentzat aukera ezin hobea Bera inguruan. Apirilaren 29an III. Mendi Maratoi Erdia egingen da, eta maiatzaren 6an VIII. Mendi Itzulia.

2007ko apirilaren 19a • XXVII. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



ERDIZKO HARROBIA EZTABAIDAN

03 **Baztani dagokion azken erabakia  
Junta Generalean hartuko da**



# ttipi-ttapa

## urtebetetzeak

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



Sunbillako **JANIRE APEZTEGIAK** maiatzaren 12an 11 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Xabi, Ainara eta Ekiñeren partetik. Aupa trikitilari.



**JANIRE APEZTEGIA ETXEBESTE** sunbildarrak maiatzaren 12an 11 urte beteko ditu. Muxu haundi bat atxa, ama, Ibai, June eta familia guztiaren partetik.



**GARAZI ESTONBA CRUZ**-ek apirilaren 18an beteko ditu urteak. Jaso itzazu 9 muxu handi handi amatxi, ataxi eta guztion partetik.



**IZASKUN DANBORIENA** azpilkuetarrak urteak bete zituen apirilaren 7an. Aunitz urtez!! Eskubaloiko taldekideen partetik. Pastak noizko?? Kasu man!! Pasta sobera jan gabe, bertenez abuztuaren 1ean komeriek!!!! j j. Muxux.



**ANA TELLETXEA** eta **UNAI BALLARENAK** apirilaren 18an eta 19an urteak beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta ongi pastu eguna.




Zorionak hirukote! **OIHANEK** urtea bete du apirilaren 4an; atautxi **FERMIN**ek 77 eta **AIMAR**ek 5 urte beteko dituzte apirilaren 27an. Zorionak familiaren partetik. Muxu haundi bat.



**ITSASO SALABURU** elizondarrak urteak beteko ditu maiatzaren 2an. Aunitz urtez taldekideen partetik. Oroitu pastak ekartzera!! Muxux.

Anima zaitetz!  
oso erraza da  
zoriondu  
internet bidez  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**ORDOKI**  
altzariak

Larunbat goiz eta  
arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



UTZITAKO ARGAZKIA

Manifestazio jendetsua egin zen martxoaren 24an Elizondoko karriketean. Ehun bat abelburuk ireki zuten agerraldia, nekazari aunitz ageri zen, eta gibeletik milatik goiti herritar.

ERDIZEN EGIN NAHI DEN HARROBIA EZTABAIDAN

# Gobernuak ingurumenari buruz egin behar duen txostenaren zain

**Kezka handia sortu du Erdizen eraiki nahi den harrobiak. Baztanen ez ezik, Bidasoaldean eta kanpoan ere oihartzun zabala du. Proiektua aspaldikoa da, 2001ean eskatu baitzuen Magna enpresak Erdizen zundatze lanak egiteko baimena. Eugiko meategiak 8-10 urteko bizia izanen duela eta, Balleko Udalak baietz erran zion. 2002an enpresak berritu zuen eskaera, baina Junta Generalak baimena ukatu zion. Garai hartan sortu zen Erdiz Bizirik plataforma, eta orduan bezala, orain ere proiektuaren aurka dago. Horren bidetik, martxoaren 24an Elizondoko karriketean egindako manifestazio jendetsua. Azken bi urteak geldirik egon ondotik, berriz ere pil-pilean dago gaia. Alde batean, Magna enpresa eta bertzean egitasmoaren kontrako plataforma. Bi aldeek diotena zehatzago jakiteko Erdiz Bizirik plataformako kide Mikel Sobrinorekin eta Magnako industria arduraduna den Jose Antonio Yereguirekin egon gara.**

## Gurutze PIKABEA

Erdiz Bizirik argi du harrobiak «babestutako eremu batean eta ingurumenean txikizioa» eraginen lukeela, eta horren bidetik, martxoaren 24an Elizondoko egindako manifestazio jendetsua. Bertze aldean, Magna enpresa, «Baztanentzat aberastasun iturri izanen den proiektua» dela iritziz. Proiektua une honetan, Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Sailean dago, han hartuko den erabakiaren zain dago Baztango Udala. Behin Gobernuan adostutakoaren berri izatean, Junta Generalean hartuko omen da erabakia, aitzinetik baztandarrei jakinaraziko omen zaie.

Baztanen inoiz egin den manifestaziorik handiena izan omen da. Antolatzaileek 2.000 bat lagun aipatu zituzten, Foru Poliziak, 1.000 inguru. Eztabaida bizi-bizi dago Baztanen.



«Txikizioa» eta «aberrastasuna», proiektu bakarra eta bi iritzi aurrez-aurre. «Naturari hartutako maila, gero itzuliko duguna». Halaxe deskribatu digu proiektua Jose Antonio Yeregui Magnako industria arduradunak. Izan ere, harrobia ustiatzeko bi zulo egitea aurreikusia dute, «gutxi gorabehera biek 480 metroko luzera, 200 metroko zabalera eta 150-160 metroko sakonera izanen dute». Baina diotenez, egingakoa berreskuratuko omen da: «Zulo horietatik bat orain duen formarekin geldituko da, erabat tapatua, eta bertze zuloak hainbat erabilpen izan ditzake: lakua, larrea edo aisialdirako gunea, adibidez». Hagitx bertzelakoa da Mikel Sobrinoren iritzia. Zuloak egindakoan, «txikizioa» itzuliezina izanen dela azpimarratzen du, eta hainbat «arrazoi» ditu, Erdiz ingurua Komunitatearentzat Interesa duen Tokia dela, adibidez.

**«Erdiz toki babestua da, eta hortaz, Udalak eta Nafarroako Gobernuak leku hori zaintzeko ardura dute. Harrobia egitea ez da gune babestua zaintzea»**



**Mikel SOBRINO** Erdiz Bizirik plataforma

#### LEKU BABESTUA

Erdizaga babestutako lekua da. 2005ean Alduide mendia Kontserbatze Berezikotik eremua (ZEC) izendatu zuten, Gisa berean, Komunitatearentzat Interesa duen Tokia (LIC) da Erdiz. LIC horrek Erdiz aldeko 9.028 hektarea hartzen ditu eta Magnaren arabera horietatik 63 hektareako eremu batean geldituko litzateke harrobia. Erdiz Bizirik, ordea, 63tik haratago joanen dela uste du, «100 hektarea hondatuko dituzte». LIC horren barruan katalogazio maila desberdineko tokiak daude, eta Sobrinok adierazi digunez, «harrobia eraiki nahi duten tokia katalogazio maila altuenekoa da». Hori horrela dela adierazteko Nafarroako Gobernuareko mapa bat ere badutela erran digu plataformakoak. Baina Magnaren mapak bertzelakoa adierazten du. Yereguien hitzetan, maparen eskalan dago kontua: «LIC bat izendatzen



**Magnak Eugin duen harrobia 8-10 urte barru itxiko da. Argazkian ager...**

denean, azterketak 1:50.000-1:10.000 eskalan egiten dira eta ez dira zehatzegiak izaten». Hala, katalogazio mailarik altuenean dagoen tokia den ala ez ikusteko, azterketa «zehatzagoa» egin omen du enpresak, 1:5.000 eskalan. Sobrinok eta plataformak, ordea, argi dituzte gauzak: «1988an Nafarroako Gobernuak Okoroko parke eolikoa baztertu zuen, bertako larretan eginen zen kaltearengatik, eta paisaia izanen zuen eraginagatik. Eta nola onartu dezake harrobia egitea?». Baztango larre haundienetarikoa da Erdiz, 1.500 abelbururen bazkalekua ere bai.

#### HARROBIAREN NEURRIAK

«Euskal Herrian inoiz egin nahi den harrobirik haundiena da, Almandozkoa baino 10 aldiz haundiagoa». Harrobiaren neurria da plataformak salatzaren duen bertze kontua, Udalak kontratatutako Ingean enpresako azterke-

tan oinarrituz. Yereguien hitzetan, ordea, ideia hori ez da «bateretuzena», eta datu batzuk eman dizkigu: «Azturretako harrobiak 78 hektarea ditu (Eugin dagoena, Magna enpresarena), Ultzamakoak 22 hektarea, Etxauri eta Tiebaskoek 72 hektarea, Alaitzekoak 55 hektarea, Almandozkoak 15...». Gaineratutakoaren arabera, «Erdizko ustiapelikoak baztertu izanen da, baina gero zulo bat estali eginen da, eta bertze zuloaren tamainakoa geldituko da. Hori ez da Euskal Herriko haundiena». Baina «Euskal Herriko bertze harrobiak eredu argiak dira lehengora ez direla bueltatzen ikusteko», dio Sobrinok.

#### INGURUMENA ETA ABERASTASUNA

Yeregui proiektuaren «bi hankak» azaldu dizkigu. Magnak badaki harrobiarekin ingurumenean eraginen duela, eta inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin azterketak egiten ari



UTZITAKO ARGAZKIA

an ageri da enpresak Zubirin duen planta.

omen da. Orain hiru urte azterketa bat egin eta Nafarroako Gobernura bidali omen zuten, han aldaketa batzuk eginarazi omen zizkioten, eta «*beharrezko aldaketak*» egin omen zituzten. «*Kontsulta guztiak aintzat hartuz hainbat aldaketa egin eta berriro Nafarroako Gobernu Ingurumen sailera bidali dugu, eta hemen osaketa batzuk agindu dizkigute. Hori bukatutakoan ofizialki aurkeztuko dugu proiektua*». Hala ere, aberastasuna ingurumenean eragindako inpaktua baino haundiago izanen omen da, Magnako arduradunaren hitzetan: «*Ez Magnarentzat bakarrik, Baztango herriarentzat ere bai*». Bide horretan, inpaktua jasoko duten guztiei laguntzeko konpromisoa hartuko omen dute. Erdiz Biziriketakoak, aldiz, argi du etekina nork aterako duen: «*Magnarentzat Erdiz altxor bat da, Zubiriko planta hor duelako, Erdizetik hurbil, eta horrela ez delako bertze plantarik eraiki beharrik*».

Magnak azken aldian Baztango hainbat eragile eta talderekin hitzarmena sinatu du, kirol arloan zein bertze arloan. Sobrinorentzat hori «*jendea erostea*» da, Yerequirentzat, ordea, «*laguntza ematea*». Herrian «*integratze*» aldera dirulaguntza eta bertzelako laguntzak emanen dituztela erran digu Magnakoak, proiektua onartua izan dadin, «*badakigulako harrobia baztandarrentzako onuragarria izanen dela*».

Harrobia eraikitzeak inguruan ere aldaketak ekarriko lituzke. Errepidearen kasuan, sei metroko zabalera izatetik zortzikora pasatuko litzateke, eta trafikoa ere ugarituko litzateke. 11 kamioi pasatuko dira orduko. «*120 kamioi goiz batean*», gaineratu du Sobrinok. Halere, bi turnotan eginez, orduko 5-6 kamioi pasatuko zirela argitu digu Magnakoak.

35 lanpostu berri sortuko dira, baina, Erdiz Biziriketaren arabera, «*gehienak Zubirin izanen dira, eta hori*

*baztandarrentzat Iruña baino urrutiago dago*». Bertzelakoa dio Yereguik, oraindik ziurtatu ezin duen arren, lanpostu «*gehienak*» Erdizen izanen direla iragarri baitu.

#### MAGNESITAREN BILA

Harrobiaren gibelean magnesitaren bila dabil Magna enpresa, Yerequiren hitzetan, «*ezinbertzeko baliabidea delako eta hagitz toki guttitan dagoelako*». Siderurgiako labeak isolatzeko, pentsuak egiteko, ingurumenarentzat... erabiltzen omen da. Beharrezkoa dela erratea «*estrategia hutsa*» da Sobrinoren iritziz. Egun herrialde aurreratuetan, Ingalaterraren kasu, itsasotik ateratzen omen da magnesita gehiena, «*hemen ateratzen dena baino aise kalitate hobegokoa*». Espainiako Gobernu Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren txosten bat aipatu du Erdiz Biziriket, eta txostenak dioenez, «*espainiar estatuan behar baino magnesita gehiago ateratzen*

*da*».

#### BAZTANGO UDALAREN JARRERA

Bi aldeen jomuga da Udala, Magnak «*akordioa*» lortu nahi duelako eta plataformak, zer eginen den argitzeko «*erantzun bat*» nahi duelako. Hala, udal hauteskundeetan aitzineko Junta Generalean, Pello Obregozo Iruiritako alkateak gai honen inguruan galdetu zien udal ordezkari. Santi Aldakok (EA) azaldu zuen Ingurumen Departamentuaren txostena izatean, Udalak Junta Generalaren esku utziko duela erabakia hartzeko ardura.

Begoña Sanzberrok (UPN), garbi du «*erabakia Baztanen hartu behar dela*» Gobernuak berari dagokionna argitu ondotik. «*Udalak aspaldi hartu behar zuen erabaki bat, eta ez ibili orain dabilen bezala*». Dena den, harrobien inguruko erabakiak ez direla sekulan Junta Generalean hartu gaineratu zuen. «*Politika berria dela ematen du, eta konforme gaude horrela aplikatuko ba-*

**“Proiektuak bi hanka ditu, ingurumena eta aberastasuna. Eta ekarriko duen aberastasuna ingurumen inpaktua baino haundiagoa da”**



**Jose Antonio Yeregui** Magnako arduraduna



## ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.net  
info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemakalariak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakei Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

## Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Zertarako balio du Baztanen Erdizaga babesteak?

Magnesistas de Navarrak ustiapen berri bat egin nahi du aire zabalean, Artesiagako sinklinalean (Baztan). Aukeratutako lekua 70 hektarea baino gehiagoko larrea da (Baztango herri-larrerik haundiena), Kinto Realeko LIC (Komitutetako Toki Garrantzitsu) izendapenaren bitartez babestua dagoena. Paraje ederak daude bertan, paisaia-multzoko interesgarriak eta lehentasuna duten hainbat habitat. Halako enklabeetan onartu daitezkeen erabilera bakarrak zaintzea helburu dutenak izan behar dute, orain arte bezala.

Dudarik gabe, Erdizko harrobia Kinto Realeko LIC-ren kontrako eraso da, belardiak eta mendialdean bakarrik bizi diren espezieak dudelako, eta inondik inora ere ez litzukeelako kaltetu edo suntsitu behar. Nafarroan, ez litzateke hain erraz izendatu behar Komunitateko Toki Garrantzitsuak, ez badago gaitasun edo borondaterik babesatutako mantentzeko.

Harrobia zero zabalean eraiki nahi da, eta ingurua erabat suntsitua geldituko da eginen diren lur mugimenduen eta desagertaraziko diren landare eta anima-

lien ondorioz. Inguruko tokietan ere kalteak eragingin ditu, zaratak, kutsadura, osasunarentzako kaltea, larre eta erakargarri turistikoak galduko dira... Ustia-pena bere bukaerara ailegatzen denean, ezinezkoa izanen da ingurumena salbatzea eta hori da gure ondorengoek jasoko dutena; hondatutako eta suntsitutako paisaia. Azken batean... kostu ekologiko eta soziala berreskuratuz izanen da ballearentzat eta etekina Magna enpresarentzat... negozio txarra.

Komitutetako Toki Garrantzitsuak izendatua den inguru batean nola eraikiko da suntsituko duen harrobi bat? Ingurumen-inpaktuaren inguruan egiten diren azterketa guztiak proiektu suntsitzaileekin batera garriak izaten dira gehienetan, zergatik?

Baztan Balleak ondare eta ingurumen paisajistikoa, herritarren mantentze ekonomiko eta sozialarekin bateratu behar luke. Hori egin daiteke, eta ingurumen aldetik jasagarria da. Hainbat arrazoi tarteko, 2007ra degradaziorik egin gabe ailegatu gara, Gipuzkoan ez bezala, eta horrek ballean onartu behar ez litzatekeenaren eredu izan behar luke.

Nafarroako Gobernuko Ingurumen Sailari, Baztango Udalariei eta baztandar guztiei dei egiten diegu paraje hau suntsitzen utzi ez de-

zaten. Batzuetan, aski da erran behar da eta bizi kalitatea mantendu, eskaintza ekonomiko tentagarriari ezetz erranez. Gauz batzuk ez dute preziorik eta horixe da Erdizagako ingurua kasua. «Hazkundea» deitzen dioten horri EZETZ errateko garaia da, NBEK egindako azken txostenak dioten bezala, gure planeta mugan dagoelako.

### Oskar Telletxea Nafarroako Lurraren babeserako Elkarteak

### Gure lurren eremuaren defentsan

Eskutitz honen bidez, Beran «Ugaldeko pisu berriak egiteko obrekin bizilagunak kexu dira» izenburuarekin argitaratutako artikuluar buruz, hainbat argibide eta zehaztasun adierazi nahi ditugu. Lehenik eta behin, erran, Unidad Bera SL promotorea gure lur-eremuan dagoeneko sartu dela eta, gurekin hitz egin gabe, zati bat lurreratu duela, hain zuzen, Hamalauenea etxebizitzetako berdegunearen zati haundi bat, kiroldegiko sarre-raren ondoan gelditzen dena. Eta, gure harri-durarako, martxoaren 6an obretako enkargatuak auzolagunoi ondoko zementuzko sarbidea ere bota behar zutela erran zigun. Horregatik, hurrengo goizean

bizilagunok elkartu ginen gure garaje eta tras-telekuetako sarbidea suntsitu behar zutenaren beldur. Beraz, guk obrak ez ditugu inoiz geldiarazi, gure lur-eremua defenditu baizik. Beraiek jakinen dute obrak zergatik gelditu zituzten eta zertarako.

Bertzetik, adierazi nahi dugu gure etxebizitza-idazkietan argi eta garbi ageri dela gure lur-eremuaren mugak zeintzuk diren eta zernolako jabetza mota duten. Ondorioz, uste dugu gure eskubidea dela gure lur-sailak hausten ez uztea, edozein beratarrik egingen lukeen bezala.

Halaber, Unidad Bera SL promotorea akta notariala eta banku-abala eginak dituztela badakigu. Baina, idazki horiek zein baliogarritasun izanen ote duten kaltetutako bizilagunekin mintzatu gabe eta deus ez adostu gabe eginak badira?

Azkenik, Berako herritar guztiei gonbidapena luzatzen diegu gure lur-sailetara hurbiltzeko eta nahi adinako zehaztasunak eta argibideak emateko.

### Hamalauenea eta Euskaldunako bizilagunak (Bera)

### Garaia delako, bai eskolak euskalduntzeari!

Gure eskualdean neska-mutiko gehienak

## • IRAKURLEAK MINTZO •

euskaraz ikasten ari dira eta Euskal Herrian ere gero eta gehiago dira euskarazko ereduetan ikasten duten haurrak. Hala ere, duela pare bat urte egindako ikerketa baten arabera, Euskal Herrian ikasleen % 33k bakarrik gaintzen zuen behar zuen euskara maila bere oinarritzko ikasketak akautzerakoan. Alegia, gaur egungo hezkuntza sistemak ez du garrantzitzen ikasleek euskara behar bezala ikasiko dutenik. Hori dela eta, hezkuntzako eragile aunitzek, euskalgintzak eta herritarrek behin baino gehiagotan jo izan dugu instituzioengana erantzukizun eske. Adibide gisa, iaz, garai honetan, sinadura bilketa handia egin genuen, lurralde osoko era guztietako eragileek babestua, Euskal Herri osoan 107.768 herritarrek izenpetzea lortu bainuen.

Sinadura horien kopiak

instituzio ezberdinen eskuetan utzi genituen, baina gaur arte ezin erran dugu nahi genukeen erantzuna hartu dugunik: Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak bilkura eman eta argi utzi zuen lege babesa funtsezkoa izan arren, aipatu erakundea estatu frantsesaren tresna zela eta, beraz, ezin dutela deus egin egindako eskaeraren inguruan. Nafarroako Gobernuak bilkurarako hitzordua eman arren, ez zuen erantzukizun politikoa duen ordezkari bidali, teknikari bat baitzik. Eta Eusko Jaurlaritzak ez du bilkurarik eman ere.

Hortaz, aipatu ditugun jarrera horiek guztiak eta ikasle guztien euskararen ezagutza lortzeko baliagarriak ez diren politikak gaintzeko beharra inoiz baino agerikoagoa delako, mobilizatzeko garaia dela azpimarratu nahi dugu. Dagoeneko Eus-

**OHARRA**

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

narekin, Berako kultur etxean Pirritx eta Porrotxek 16:30ean eta 18:30ean eskainiko duten Maremotos ikuskizunarekin emanaldiekin borobilduko da. Ekimen honetan eta oro har eskolen euskalduntzea aldarrikatzen duten guztietan parte hartzea deitzen zaituztegu, eta eskuz esku lanean aritzeko deia luzatu nahi dizuegu euskaltzale, irakasle eta oro har, herritar eta herri erakunde guztiei.

**Bortzirietako Bai Eskolak Euskaldundu herri ekimena**

### Garai bateko kontuak

Garai bateko kontu/Goguan dugula/Ez zitazun batere / Gustatzen angula / Baratzeko lanekin / Aski bazenula / Lauretan hogeita hamar / Urte dituzula.



Ez dira urte aunitz / Kontuan hartuta / Famili ugaria / Ongi handituta / Hamabi seme-alaba / Ongi hornituta / Senarra ere zintzo / Etxerako hartuta.

Gero etorri ziren / Hainbat komeriak / Hogeitamabloba / Beltzak ta zurriak / Era guztietako / Umeen jitiak / Birbilobekin ere / Bete familia.

Aurtengo urtarrilean / Zortzigarrenean / Denok gaudela eta / Zoriondu beharrean / Jaso ezazu bada / Muxuk bitartean / Amatxi, orain zaude / Zorion betean!

**Ainara Maia Urroz**

**caroha**  
gastronomia

Erretorategia 25 biko - t.948 63 08 99  
48700 Bera (Navarra) - www.caroha.net

**BITTIRIA ARDOTEGIA**

Bitirio 53, 20 - LESAKA  
Tfnos: 948 627 508

**Haur jaiaberrientzako osteopatia tratamenduak**

**Karlos Alzugaray**  
FISIOTERAPEUTA  
OSTEOPATIA

Itzea 20 - 31780 Bera - Navarra  
T. 948 630 187 M. 607 853 208

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**ola**  
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa  
20304 IRUN  
Tfnos: 943 623 130

## KULTURA

# Xabier Silveira bosgarren aldiz Nafarroako txapeldun

Nafarroako Bertsolari Txapelketan bertz txapel lortu dituen bakarra da

## ttipi-ttapa

Martxoaren 24an egin zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta Xabier Silveira lesakarrak jantzi zuen berri ere txapela. Aurten gainera, Nafarroako Txapelketan inork lortu ez duena egin du: bosgarren txapela. Bat bertzearen ondotik eskuratu zuen laugarrena. Elizondoko Lur dantzalekuan jokatu zen saiora jende andana inguratu zen. Taula gainean Erika Lagoma, Iñigo Olaetxea, Joxe Juan Zubieta «Etxabe», Jon Barberena, Julen Zelaieta, Miel Mari Elozegi «Luzze» eta Bittor Elizagoien eta Xabier Silveira.

Bertze urte batez puntuaziorik altuena Silveirak eskuratu zuen: 417,5. Kartzelako lan fina egin zuen lesakarrak eta saioa horrekin bozatu zuen. 18 puntu ko alde atera zion bigarren gelditu zen Jon Barberena elizondarra. Honek ere saio ona egin zuen, aitzineko ur-



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Silveirak preso, iheslari eta sasian daudenei eskaini zien bere bosgarren txapela. Estitxu Arozenari ere eskaini zion bertze bertso hunkigarri bat.**

tean baino hobea, eta 399,5 puntu lortu zituen. Hirugarren Iñigo Olaetxea gelditu zen 396 punturekin. Erika Lagomak ere puntuazio berdina jaso zuen eta laugarren gelditu zen. Hirurek ere saio polita aditzeko aukera eman zuten.

Bosgarren tokia Berara joan zen: Julen Zelaietak 386 puntu lortu zituen. «Etxabe» izan

zen seigarrena 382rekin. Zazpigarrena «Luzze» leitzarra gelditu zen eta zortzigarrena Bittor Elizagoien, 364,5 eta 354,5 punturekin hurrenez hurren.

Umorea, drama, piñeak, sentimenduak... Era aunitzetako bertsoak aditu ziren, baina bertze ere kartzelakoan nabarmendu ziren bertsolariak.

Akaberako agurrean,

duela hamar urte agurrean gogoan izan zituenek eskaini zion Silveirak txapela: preso, iheslari eta sasian daudenei. Bigarren bertsoa ere kantatu zuen txapela soinean, eta aurtengo txapelketan parte hartzerik izan ez duen Estitxu Arotzenarentzat izan zen. Bertso hunkigarri bat eskaini zion, eta txalo zaparrada jaso zuen.

## FLASH

**Ustezko 16 indarkeria kasu Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Bertizaranako**

Genero indarkeriaren biktime izan diren emakumeen arretarako arreta batzordeak Nafarroako datuak eman ditu ezagutzera, tartean, Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Bertizaranako datuak. Martxoan hirugarren astean egin zuten bilera eta bertan aurkeztutako txostenaren arabera, inguru horretan 16 salaketa zenbaitu dira txarreatatik edo sexu erasoengatik. Nafarroa osoan, aldiz, 821 kasu izan dira.

**Kamioi istripua N-121-An, Etxalar parean**

Martxoaren 27an kamioi istripua gertatu zen N-121A errepidean, Etxalarako bentatik hurbil, Iruñera bidean. Zisterna-kamioia gidatzen zihoan 35 urteko gidaria, kamioiaren kontrola galdu eta 60 metrotan amildu zen, Bidasoa ibaiaren ertzean geldituzeko. Erreskate lanak Oronoz-Mugairiko, Iruñeko eta Lesakako suhiltzaileek egin zituzten. Gidaria, larri zauritua, Iruñeko ospitale batera eraman zuten.

**PERSIANAS** **TOLDOS BAZTAN**

TOLDOAK salmenta-konponketa- alokairua-errotulazioa  
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak  
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003  
Bidasoa, 66 behea - BERA

**ANSONEA**  
Ostatua-Jaletxea

Eguneroko menua eta  
asteburutarren menu bereziak

Terraza estalia eta Ziberkafea

Fonien Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

**ttipi**  
**ttapa**

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458



## BERA

# Igerilekua moldatzeko dirulaguntza jasoko du Udalak

Ekarriko duen gastua Nafarroako Gobernuak ordainduko du bere osotasunean

### Amaia eta Ainhoa

Nafarroako Gobernuak 2.267.506 euroko dirulaguntzak banatu ditu hemeretzi herritako udal igerilekuak indarrean dauden arauetara egokitzeko. Herri guztien artean 4.531.862 euroko inbertsioa egingo dute. Berako igerilekuak 74.581,27 euroko aurrekontua dauka eta Gobernuak %100eko dirulaguntza emanen dio Udalari.

### Aldaketa telebista seinalean

Martxoaren 30az geroztik Frain menditik iristen den telebista seinaleetan aldaketa bat izan da, Cuatro kateari dagokionean. Bortzirietan orain arte 62. kanalean ikusten zen Cuatro. Orain, ordea, 35.ean ikusten da. Telebistan aldaketa hori egin behar da Cuatro ikusteko.

### Barojatarren kongresua urrian

Pio Baroja hil zeneko 50. urteurrena os-

patzeko antolatu diren ekitaldi-omenaldien artean, Nafarroako Gobernuak Kultura Sailak apirilaren 20 eta 22ra-ko Ikasketa Barojiano-en Kongresua iragarri-ta zuen, baina azkenean, urriaren 19 eta 21era atzeratu dute. Sinposioa Nafarroako Museoa izanen da eta jardunaldiak bat barojatarrek litzean duten etxean ospatuko da. Txosten egileen artean, Mario Vargas Llosa, Fernando Sanchez Drago, Andres Trapiello eta Eduardo Mendozak parte hartuko dute, ustez.

### Pirritx eta Porrotx

Bai Eskolak Euskalduntzeari eta Berako Kultur Batzordeak antolatuta, apirilaren 25ean, asteazkena, 16:30etik 18:30era Pirritx eta Porrotxen «Mari Motox» ikuskizunaren bi emanaldi ikusi ahal izanen dira. Sarre-rak 5 eurotan salgai egonen dira Errekalde ostatua (Bera), Agara Prentsa (Bera), Izarra



ARGAZKIA: GOIKO

### Aitor Escagüesen oroimenez

Martxoaren 25ean hil zen Aitor Escagües Dozagarat ikasle gaztea, orain Toki Ona Institutuko ikaslea zena, eta aurretik, Ricardo Baroja Eskolako ikasle izandakoa. Azken agurra emateko, bere ikaskide, irakasle eta bi ikastetxeetako gurasoek ekitaldi hunkigarria egin zuten Toki Ona kiroldegian martxoaren 29an. Oroigarri modura eta Aitor futboleko atezaina zela gogoratuz, familiari baloi bat, lore sorta eta bere ikaskideek idatzi eta margotutako lanekin osatutako liburuxka eman zitzaion.

okindegia (Lesaka), Kattu ostatua (Lesaka), Elutsa ostatua (Etxalar), Pablo-enea (Arantza) La Villan (Igantzi).

### Liburuaren Eguna

Apirilaren 23an izanen da Liburuaren Eguna eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dira. Apirilaren 24an 18:00etan, Joxean Oiz-zek «Beñat Dardo» li-burua aurkeztuko du. Apirilaren 27an, aldiz, bi ekitaldi izanen dira: 18:00etan, Estitxu Men-taberrik bere ipuinak kontatuko ditu eta 19:30ean Maria Agirre-ren «Arratsalde eroti-koak» entzuteko aukt-ura izanen da liburutegian.

### Argazki Rallya

Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, Ricardo Barojako Guraso Elkarteak aurten ere antolatu du Argazki Rallya. Apirilaren 21ean Ricardo Barojan hasi eta bukatuko da, eta 10:00-etatik 13:00-etara lehen hezkuntzako 2. eta 6. maila bitarteko hurrek argazkiak aterako dituzte.

### Lehen izokina

Hondarribiko Nikasio Altunak arrantzatu du lehen izokina. Apirilaren 1ean 6,200 kiloko izokina (88 zentrimetrokoa) atera zuen kutxarilarekin. Gero, 2.000 eurotan Ribadesellaseko (Asturias) Campanu jatetxe-ari saldu dio.

### Haur Kantari Jaialdia

Apirilaren 1ean, egin zen Euskal Kantuzale-en Elkarteak antolatuta, XX. Haur Kantari Jaialdia Gaiarre antzokian. Bortz bakarlarik, hiru hirukotek eta hamasei taldek parte hartu zuten eta eskualde-tik joandako gazteak ere aritu ziren. Epaimahaiak hainbat sari banatu zituen eta Berara bi aile-gatu dira: Lehena, Izaro Iriarteri «Xalbadoren Heriotza» kantua interpretatzerakoan jarritako sentimenduarengatik. Bertzea, Axuria Taldearentzat izan zen, «Maitasun hitzak» abes-tiarekin, aurkezpen ori-ginalena eta ahots gar-biena izateategatik.

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK  
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

## LESAKA

# Biurrana eta Onin bideratu eta erreka bazterrak txukuntzeko bi milioi euroko laguntza izanen da

Irubide, Sumusa, konbentua, Osasun Zentroa eta Beko Errotako zubiak berrituko dira

Aitor AROTZENA

Biurrana eta Onin erreka bideratu eta ingurumen aldetik berreskuratzeko lanak aurten hasiko dira. Espainiako Diputatuen Kongresuan Nafarroa Bai koalizioak aurkeztutako proiektuak 2.289.900 euroko aurrekontua izanen du. Biurrana eta Onin erreketako bina lekutan eginen dira hobetze lanak. Irubide inguruan, 300 metroan eginen dira lanak erreka bi aldeetan, 24.961 euroko gastuarekin. Irubideko zubi bota eta berria ere eginen da. Aceralia parean ere bertze 300 metroan moldaketa lanak eginen dira. Sumusako zubi ere bota eginen da eta berria eraiki, 221.712 euroko gastuarekin. Onin erreka dagokionez, igerileku inguruko 100 metroan zuhaitzak landatuko dira, tratamendua eginen

da eta konbentuko zubi bota eta berria eraiki, 435.617 euroko gastuarekin. Landazelaian eginen da moldaketa zatirik handiena, 750 metro, Osasun Zentrotik hasi eta Tomase nekoborda bitartean. Errekaren bi aldeetako moldaketa eta landatze lanez gain, Osasun Zentruko eta Beheko Errotako zubiak berrituko dira eta pasabide berria eginen da. Inguru honetan eginen den gastua 749.493 eurokoa izanen da.

## Tantirudantza apirilaren 29an

Tantirumairu Dantza folklore taldeak antolatuta Tantirudantza taldeen topaketa eginen da apirilaren 29an, igandearekin. Goizeko 10etatik aitzinera karrikaz karrika ibiliko dira Euskal Herri osotik etorritako dantza taldeak.



ARGAZKIA: AITOR A.

## Korrika handiaren aitzinetik Korrika Ttikia

Korrika handia herrigunetik pasatzen ez bazen ere, Irain eskola eta Tantirumairu ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek Korrika Ttikia egin zuten herriko karriketan martxoaren 30ean. Ondotik, indarrak berreskuratzeko, txokolatea eskaini zen arkupetan. Bi ikastetxez gain, herriko hainbat elkarte eta erakundek ere parte hartu zuten biharamonean Korrikan, Endarlatsa eta Sunbilla bitartean.



ARGAZKIA: AITOR A.

## Muga Gainetik Topaketa arrakastatsua

Lehenengo eta oraingo etorkinak elkartu eta beraien ohitura, kultura eta gastronomia lesakarrei ezagutarazteko helburuak ederki aski bete zituen apirilaren 1eko Muga Gainetik topaketak. Galizako gaita eta muñeirak, Andaluziako flamenkoa, Hego Amerikako hainbat herrialdeetako jakiak eta edariak eta nola ez, Euskal Herriko sagardo eta taloak izan ziren protagonista. Plazako aparkalekuan jarritako karpa ttiki gelditu zen.

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASQUINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA  
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaka

**XATURETXEA**  
ZAJETXEA  
JATETXEA  
T: 948 637 027 • LESAKA

**IRU BIDE**  
Estrategia • Asador  
Biarritzako 3. Lesaka  
Tel: 948 637 127

**GOZZALDE**  
TANARREDUNDA  
Tfnoa. 61 • 948 637 030 • LESAKA



## ETXALAR

# Julen Zubieta lesakarrak hartu du Herriko Ostatura

Apiril hasieran ireki zituen ateak, hilabete batez itxita egon ondotik

### Joseba eta Nerea

Hilabete bat eskas pasatu da Iñaki Pika-beak Herriko Ostatura utzi eta Julen Zubieta lesakarrak hartu duen arte. Uste baino denbora guttiagoz ireki ditu ateak berriz ere herriko gazte gehienen bilgune den ostatu-jateak.

### ESKARMENTUKO SUKALDARIA

Ostatuko arduradun berriak 26 urte ditu eta sukaldaritza ikasketak egin zituen Donostian. Ez zaio lan arrotza egiten sukaldekoa, urte franko pasatu baititu dagoeneko hainbat jate-xe eta ostatutan lanean. Herrikoen ere 4 urtez aritu zen Iñaki Pika-bearekin. Orain, aldiz, etapa berria hasiko du, langile izatetik ostatuaren nagusi izatera pasatuz.

### ILUSIOA ETA LAN EGITEKO GOGOIA

Sukaldari, zerbitzari eta gainontzeko langileen lantaldea osatuta, pasaden apirilaren 1ean ekin zion abentura berriari. Ilusioz eta lan egiteko gogoz dagoela aitortu digu Julenek. «*Hasierak ez dira inoiz errazak izaten baina Herriko Ostaturak urte aunitzeko esperientzia du Etxalarren, eta hemendik aitzinera ere ongi joanen den ilusioa dugu guztiok. Lana gogotik eginen dugu, gurerat etortzen diren guztiei zerbitzu ona eskaintzeko».*

Ea bada, orain arte izan den bezalaxe, Julen Zubieta-rekin ere kalitatezko otorduak, zerbitzu profesionalak eta giro onak ez duten hutsik egiten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Julen Zubieta Herriko Ostaturako nagusi berria, jate-xeak jantokian.

### Euskaltzaindia Etxalarren

Ortzegun honetatik larunbata bitarte, Euskaltzaindiakoen bisita izanen dugu herrian. XV. Barne-Jardunaldiak eginen dituzte hiru egunez Kultur Etxean. Euskaltzaindiako kide guztiak etortzekoak dira eta euskararen inguruko gaiak landuko dituzte 3 egunetan.

### HERRITARREI IREKITAKO BILKURA

Larunbatean, apirilak 21, ageriko bilkura iragarrita dute eta herritarrek gonbidatuak daude, nahi izanez gero. Goiz horretan Pello Ape-

zetxeak eta Patxi Iñigok hitzaldiak eskainiko dituzte, euskaltzain izandako bi etxalarar (Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar) eta Bortzietako hizkeraren inguruan, azken hau gaurko gazteengan nolako den. Hitzordua 12:30ean da Kultur Etxean.

### Bataiorik ez aurten

Apirilaren 8an, Bazko igandea, bataioak egitea tokatzen zen, baina haurrik ez zegoela eta, ez zen egin. Kurioso da, azkeneko aldiaren, joan den urri bukaeran, 10 ordu bataiotu baitziren.

### Bai Euskarari Ziurtagiriak

Etxalarako 12 entitatek hartu dute aurten ziurtagiria. Martxoaren 31n egin zen banatze-ekitaldia Beran eta hartxe zeuden hainbat herritar. Aurten 4 eragile berrik hartu dute euskararen aldeko konpromisoa: Kultur Etxeak, Ginko lorezaintzak, Ttipi-Ttapa fundazioak eta Urriti landetxeak. Iaztik berri dutenak Altxata, Elutsa ostatura, Iturria etxea, Landaburua, Landagain eskola, M<sup>a</sup> Eugenia Sagardoi farmazia, Mikelestonea landetxea eta herriko okindegia izan dira.

**arkitektoak**

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBITZEA PROIEKTUAK  
URBANIZAZIO PROIEKTUAK  
ETXEN BERRITZUAK  
NABEAK  
KONSULTAK  
INFORMAZIOA: 33

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TEL 948 581 931

**Iñaki Alzuet margoak**

Fabrika - Berruntzak  
Dekorazio (estalki, bolakurak...)  
Plaketa - Latakak eta berruntzak kalitate

Kamilea Etxea - Landaberri Auzoa - 31711 URZAZUBI  
Telefono: 659 862 417

**bortzirudi**  
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK - KANPOTAK - BISTAK - TOKAEBORRA (Nahi duzun osari - berruntzak)  
FOTOKOPIA DIGITALAK - KOLORBETAN - TXORI BISTAZAN - PLANOAK  
ENKADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEKETA - BULIGO MATERIALA  
DISEÑO GRAFICO - LOGOTIPOAK - ERROTULAK - IMPRENTA

Ertegorri, 26 Eskuintzean Beheko D - BERA - tel-fax: 948 631 521

## ARANTZA

# Goizuetara mendi ateraldia antolatu du Ekaitza Elkarteak apirilaren 28rako

Aste Santuko zubi luzean dozenaka lagunek gure herria aukeratu dute oporraldirako

Nerea ALTZURI

Urteko lehenabaziko hiru hilabeteak agurtu dugu, honezkeroko Aste Santuko oporralditxoaren ondoren, azken txanpan sartuak dira ikasleak ikasturteari dagokionez. Egun horien inguruan ez dituzte ordea, atsedeen egunak eskolako irakasleek eta ikasleek bakarrik izaten. Aste Santuko egunetan egunerokoa aunitzek uzten dute, oporraldi luzeago edo laburragoaz gozatzeko. Jende aunitz izan da herrian oporrerantz: landetxeek, albergeak, jatetxeek, dendek... hori guziaz nabaritu dute. Eta horien jabe eta langileek, gehienok ez bezala, lan gehiago egin behar!

Eguraldiak ez du sobera aurpegi makurra

erakutsi, eta eguneko zenbait momentutan behintzat, gure herriko mendiekin, naturarekin, inguruekin gozatzeko parada izan dute bisitariak. Laster udako planingintza egiteko astia hartuko dute hainbatek. Guk gure herrian gustura iraganen ditugu udako egunak ere, pasa berri direnak egin ditugun moduan.

## Goizuetara mendi ibiladia

Duela bi urte antolatutako moduan, aurten ere Goizuetara mendi ateraldia antolatu du Ekaitza Elkarteak. Datorren apirilaren 28an izanen da, eta seguraski orduan izan zinetenok eta gogo duzuen orok izenemateko asmoa izanen duzue. Ekaitzako ardu-



ARGAZKIA: AINARA AMOROS

## Korrika Ttikia herrian

Euria eta euria, egun bat bai eta hurrengo ere berdin... Egun horietan berriki arte egun osoak eurtan izan baditugu ere, Korrikak erauntsi guttiko tarteak ere izan zituen. Herrian Ekaitza Elkarteak eta eskolak antolatutako Korrikan ere ateri izan zen. Herrian barna eta inguruan itzulixka giro ederrean egin zuten parte hartu zutenek. Aitzinean megafoniako furgoneta bat zihoala, ordu batez gustura egin zuten Korrika. Adin guztietako haurrak, gazteak, gurasoak, helduak, gurasoak haur tikiak kotxean edo besoetan zituztela, partaide izan ziren. Gero merienda goxoa egin zuten haurrek, eta beranduxeago, helduxeagoek merienda-afaria egin zuten Korrika nagusirako indarrak hartzeko. Arratsean ere herritar sailak laster egin zuen: Arantzako Gazte Asanblada, Ekaitza Elkarte eta Herri Eskolak zegozkien kilometroetan egon ziren Berrizaun inguruan.

radunetara jotzea berterik ez duzue izanen. Egunari dagokionez, mendiz-mendi Goizuetara ailegatu, eta bertan bazkaldu ondoren, etxerako bidea hartuko da autobusez. 2005ean apirilaren 30ean egin zen ekimen hau, eta 50 lagunek parte hartu zuten. Eguraldi ona lagun, lau ordu pasatxoko ibi-

laldia izan zen, eta gehienak herrikoak izan baziren ere, eskualdeko bertze mendigoizale batzuk ere parte hartu zuten. Beraz, esperientzia errepikatzeko gogo duen horrek eta ibilaldia ezagutu nahi duen guztiak aukera izanen du mendiko egun pasa Arantza eta Goizueta artean egiteko.

## Ekaitza-Arantza futbiton

Baztan-Bidasoaldeko futbito txapelketan parte hartzen ari da Arantzako gazte talde bat, martxoaren 25az geroztik. Ekaitza-Arantza izeneko taldeak igandetan Sunbillan jokatzeko dituen partidak inguruko bertze 15 talderekin batera.



# EUROCENTRES

Language Learning Worldwide



Ingelesa

Frantsesa

Gaztelania

Italiera

Aleman

Japoniera

Errusiera

## Hizkuntza ikastaroak mundu zabalean!

**7 hizkuntza munduko 29 tokitan**

Informazio hitzaldiak atzerriko ikastaroei buruz  
Adin guztietako pertsonentzat

- 🕒 **EGUNA** Maiatzaren 5ean, larunbata
- 🕒 **ORDUA** 10etatik 13etara
- 📍 **TOKIA** Hotel Churrut • Foruen Plaza, 2 • 31780 BERA

Goizeko 11etan azalpen llabur bat emanen da  
dauden aukera desberdinei buruz.

Jardunaldiaren bukaeran, Ingalaterran **4 asteko**  
**ikastaroa zozketatuko da daudenen artean!**  
(16 urtetik goitikoentzat)

Idoia Garmendia • Lesaka • Tel: 948637135  
[iqinton@eurocentres.com](mailto:iqinton@eurocentres.com) • [www.eurocentres.com](http://www.eurocentres.com)



**Zatoz eta informa zaitez konpromisorik gabe**  
**Etorriko bazara, eskertuko genuke baieztatuko bazenigu**



## BORTZIRIAK

# 138 Bai Euskarari Ziurtagiri banatu berri dira Bortzirietako entitateen artean

Horietatik 20 aurten bildu dira lehen aldiz Kontseiluaren ekimenera

## ttipi-ttapa

Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa egin zuen martxoaren 31n Berako Kultur Etxean. Hala, euskararekiko konpromisoa adierazten duten Bortzirietako hainbat enpresa, saltoki eta entitatek ziurtagiria jaso zuten. Ekitaldian izan ziren, bertzeak bertze, Kontseiluko idazkari nagusia Xabier Mendiguren, Mankomunitatearen presidentea Vicente Arozena, euskaingintzaren ordezkari Mentxu Peña, udalen bozeramailea eta Bai Euskarari Ziurtagiria jaso duen enpresa bateko ordezkaria. «Euskara da berotzen gaituen eguzkia eta Bortzirietan eguzki hori inoiz baino indartsuago dago herriko eragileek etengabe pizten dutelako», adierazi zuen Mendigurenek.

Aurtengoan guztira 138 ziurtagiri banatu dira Bortzirietan, horien artean 20 berriak ziren. «Bai Euskarari Ziurta-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

**Argazkian ziurtagiria jaso zuten zenbait entitatetako ordezkariak ageri dira, banaketa ekitaldian.**

giria duten entitateek eman dituzten urratsak, ematen ari direnak eta emango dituztenak dira, euskararen eguzkia pizten eta bizitzen duten argia», azpimarratu zuen Mendigurenek.

Euskara erabiltzeko mezua zabaltzen ari bada ere, euskarak bere tokia berreskuratzeko

lana zabalagoa dela aldarrikatu zuen Mentxu Peñak: «Euskararekiko konpromisoa hartu duen erakundeek eutsi egin behar diozue horri, konpromiso bidean daudenek urratsak eman behar dituzte, eta oraindik konpromisorik hartu ez dutenengana ere iritsi egin behar du-

gu». Gisa berean, euskara «egunero geure bizitzan, etxean, eskolan, lanean, dendan konunitatzeko behar dugun tresna» dela gaineratu zuen Mentxuk.

Bertzalde, instituzioen partehartzearen garrantzia azpimarratu zuen Bortzirietako Euskara Mankomunitateko

ordezkariak, Vicente Arozenak. «Bortzirietako udalek gizarteak euskararen alde egin duen apustuarekin bat egiteko lanean, guztiok beharrezko garela» erran zuen.

Azkenik, ziurtagiria aurten jaso duen Odriozola eta Huizi aroztegi metalikoaren izenean, Amaia Odriozola solastu zen: «Konpromisoak hartu ditugun erakundeok bidea irekitzen ari gara bertze batzuek urrats beretatik aitzinera joan daitezzen». Dena artean arituz gero, Bortzirietan eta Euskal Herri osoan euskaraz bizi, ikasi, lan egin, erosi, irakurri, informatu eta abar egitea gero eta «errazagoa» izanen dela adierazi zuen.

Ekitaldiaren akabera emateko, Kontseiluak dagoeneko 1.400 Bai Euskarari Ziurtagiri baino gehiago banatu direla gogoratu zuen Mendigurenek, eta Kontseiluaren izenean eskerrak eman zituen.

**AUTOLÁMINAS BURU**

LAMINA HOMOLOGATUAK

680984353 / 677118403

BERA

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA LINDDURRENBORDA

**LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA**

Txotx denboraldia irekia

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA Telleria auzoa - LEKARISE 949 452121 • 929 494317

LINDDURRENBORDA Nabat auzoa - LESAKA 949 637212



## ZUBIETA

# Herritarrak San Anton ermita berritzen ari dira

Obrak laster akituko dituztela espero dute



### ttipi-ttapa

Herritar talde bat San Anton ermita berritzen ari da azken aste hauetan. Urteik urtera ermitaren egoerak okerrera egin du, eta egoera txarra

tarteko, urtean behin, urtarilaren 17an, egiten den mezan arriskuan jartzan zituen bertan bildutako lagunak. Hala, 20 bat herritarrek bere gain hartu du ardura, eta

azken aste hondarretan guztiz berritzen ari dira; zola berritzen, paretak emokatzen, teilatua berritzen eta pintatzen... laster akituko dutela espero dute.

## SUNBILLA

# Ulibeltzak elkarteak datozen bi urteetarako zuzendaritza batzordea berritu du

### Jaione OTXANDORENA

Ulibeltzak elkarteak zuzendaritza berria du. Martxoaren 31n bilera egin zuten bazkideek beste zenbait gaien artean zuzendaritza batzorde berria aukeratzeko. Bilerara joan zirenek, bazkide guztien arteko hautaketa egin zuten eta horrela, datozen bi urteetarako ordezkariak aukeratu zituzten. Horrenbertzez, horrela gelditu da batzordea: lehendakaria Nerea Petrirena izanen da, lehendakariordea Mikel Bertiz, idazkaria Jon Antzizar eta bokalak Vixente Ibarra, Juanito Jorajuria, Maria Ascension Ibarra, Inazio Marizkurrena eta Maribi Latasa. Hala, apirilaren 14an, azken bi urteetan batzordean egondako ordezkariak eta datozen bi urteetan elkartearen batzordean egonen direnak afaria egin zuten, elkartearen egoitzan.

### Jaunartzeak

Datorren apirilaren 29an lehen jaunartzea egingen dute herriko gaztetxoek. Aurtengoan bostz herritarrek egingen dute jaunartzea.

### Sinadura bilketa

Sunbillako sozialista abertzaleak ere hasi du sinadura bilketa, Euskal Herri osoan hauteskunde demokratiko baten alde egiten ari diren 30.000 sinadura bilketen ekimenarekin bat eginez. Sinatu nahi duen guztiak Herriko Etxera joan behar du idazkaritza zabaldua dagoen orduetan. Sinatzeko epea apirilaren 22an akituko da.

## MALERREKA - BERTIZARANA

# Mitxel Aginaga taldekako txapeldun Munduko Green Cup Txapelketan

Banakako sailkapenean seigarren postuan helmugaratu zen

## ttipi-ttapa

Mitxel Aginaga narbartearra txapeldun gelditu zen apirilaren 1ean Argentinan jokaturako Munduko Green Cup Txapelketan taldeka. Banakako sailkapenean dagokionean, seigarren postuan helmugaratu zen. Denboraldi honetan, BH Inverse taldean ari da Aginaga, eta BH Inverse izan zen taldeka garaile: Aginaga, Romero, Del Corral, Martinez eta Arnesek osatutako boskotea.

Kirolariek 7,5 km egin zituzten oinez mendian, 30 km bizikletaz, eta akitzeko, berriro 7,5 km mendian. Aipatzekoa da, eguraldiak ez zuela batere erraztulan. Eguraldi lehorra eta beroa egin zuen eta hauts aunitz zegoen zirkuituan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mitxel Aginaga taldeka garaile izan zen Munduko Green Cup txapelketan. Banaka, seigarren postuan akitu zuen proba.

## Kinto bestak

Apirilaren 21ean Doneztebeko eskolan ikasitako gazteen kinto besta egingen da Donezte-

ben. 1970, 1972, 1973, 1975, 1977, 1978, 1979 eta 1980an sortutakoek hilaren 18a baino lehen izen eman behar

dute Titi ostatuan, eta 10 euroko seinalea ordaindu. Hitzordua larunbatean 13:00etan, Titi ostatuan.



## PERTSONAIA

Noelia ARIZTIA

## Urrezko domina Espainiako Judo Txapelketan, Iparraldeko sektorean

Errekako judoek emaitza ezin hobekak eskuratzen segitzen dute. Azkena, Noelia Ariztia 21 urteko doneztebarrak lortu du: Urrezko domina Espainiako Txapelketan, Iparraldeko Sektorean. Euskal Herriko judoek gain, Aragoi eta Errioxakoak ere parte hartu zuten bertan. Lehendabiziko postu hau lortu ondotik, orain, apirilaren 20 eta 21ean Madrilan jokatuko den Espainiako Txapelketaren finalean hartuko du parte.



## ISIDORO FAGOAGA BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA

Aurrematrikulak 2007/2008: apirilaren 16tik 18ra  
Haurrak (3 urtetik aintzina), gazteak eta helduentzako klaseak

### • BERRIAK

• **ABESBATZA TXIKI!!!** Ongi pasatuko duzue zuen gustuko kantak ikasiz eta Musika Eskolako kontzertu eta irteeratan Ez da musika hizkuntzarik (solfeo) behar!

- Astean ordu bat
- Hileroko prezioa: 9'20euro

• **12 URTETIK AINTZINERA** musika tresna bat ikas dezakezue, **ANIMA ZAITEZTE** (Solfeorik gabe edo solfeoarekin)

Informazio gehiago:  
[www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola](http://www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola)  
Tfnoa: 948 631 205  
Bulegoko ordutegia: arratsaldeko 15:30etik 19:00ra

Aurrematrikula orriak:  
web orrian eta  
Musika Eskolan





## ITUREN

# Korrika jendetsua aurtengoa

Erasunek aurrera segitzen du Urrezko Aizkolarien Txapelketan

### Arkaitz MINDEGIA

Martxoaren 22an Karantzatik abiatu zen Korrika. Herriz-herri ibili ondotik Iturenera ere iritsi zen. Lehenik eskolako haurrek ortziral arratsaldean Korrika Tikia egin zuten herrian barna, eta larunbatean kantu afariaren ondotik, (02:00ak aldera) Korrika nagusiaren txanda izan zen. Joaldunak, Hartza, haurrak eta helduak, denak ateri ziren Korrikari ongi etorria egitera. Jendetsua eta hunkigarria izan zen. Ibintza kultur taldeak herri sarreratik goiko pisuetara, eta Udalak lekukoa hartu eta Aurtizko sarreraraino. Lekukoa Ibintzakoek hartu zuten lehenik eta herri sarreran Hartzari eman zioten herriko bidea egiteko.

### Joaldunak Bergaran

Martxoaren 31n Aurtizko joaldunak Bergaran urtero ospatzen den *Erramu zapatuko ferian* ibilaldi ikusgarria eskaini zuten.

### Ander Erasun

Aizkolari gaztea indartsu dago. Orain gutxi bukatu den Urrezko Aizkolari Txapelketan, gazte mailan Rekondo bikotekide zuela, finalera ailegatu zen. Orain, beriz, banaka ari da. Hilaren 7an, Urrotzen, Beintza-Labaiengo Alejori irabazi ondotik, aurrera segitzen du txapelketan.

ARGAZKIA: AINARA MIDEGIA  
**Joaldunak eta Hartza ere Korrikan ibili ziren.**



**TOAILAK**  
 Toailak-Manteleriak-Oheko maindreak  
 Eskolako hauren mantalak etab...  
 bordatzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blus  
 peña bakoitzaren logotipo eta izenekin  
 bordatzen ditugu

Ekari Plz. Berrio 4-ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

**egoi bardot obregozo arkitektoa**  
 679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700  
 948250371 Iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

**ATM S.A.**  
  
 AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A.  
 Igantziko bentak  
 948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaia
- Mantenu rodilloak

**BIZIKLETEN**  
 SALMENTA ETA KONPONKETA

**MATER-BIKE**  
 Kanflonberri, 1 • BERA  
 948 63 12 18



**Betaurrekoak aldatu behar dituzula ?**

Begiratu ttipi-ttapa telefono gidan



## SALDIAS

# Saldiasko pendoitzak ere aisa gainditu zituzten Korrikan parte hartu zutenek

Bestalde, bertso afaria eta gaupasa eginen dira maiatzaren 5ean, iazkoari jarraituz

**Markel LIZASOAIN**

Goizaldean zen ailegatzekoa, baina herria ez zuen lo harrapatu. Batzuk ostatuan afaltzen edo musean egon ziren Korrikaren zain. Beste batzuk nahiago izan zuten etxean afalduta atera. Batera edo bestera 3:00etarako kuadriltxoak bildua zen herri sarreran harrera egiteko. Lekukoa Oier Erasunek hartu zuen lehen metroetan eta gero txandan ibili zuten Orokietara bidean.

## Bertso afaria eta gaupasa

Aurten ere ez dute hu-



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Herritarrek ez zioten hutsik egin Korrikaren 15. edizioari eta herri sarrera egin zioten harrera.

tsik eginen zikiro jateak eta gaupasak. Dena prest dago pesta ede-

rra egiteko. Afaria 21:00ak aldera izanen da pilotalekuan. Menua

ere iazkoaren berdina izanen da: zizka-mizkak, zopa, piperrada, zi-

kiroa, postrea, kafea eta kopa izanen dira. Mahaian ez da ez bertso-rik ez umorerik ere faltako. Afalondoa Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruak girotuko dute. Eta ondotik goizaldera arte Trakets taldeak joko du.

Afarirako txartelak, 30 eurotan daude salgai apirilaren 29a arte: Saldisko ostatua, Ezkurrako Barranka, Doneztebeko Titi, Leitzako Txoko eta Arantzako Pabloenea. Txartelarekin afaritik kanpo kontsumizio bat izanen da doan. Gaupasara etorri nahi duenarentzat sarrera librea izanen da.

## ARESO

## Olano eta Sagastibeltza Euskal Herriko pilota txapelketan azpitxapeldun

Bestalde, Aste Santuan bi haur bataiatu ziren

**Juana Mari SAIZAR**

Herriko bi pilotari gaztek maila ona erakutsi zuten Euskal Herriko pilota txapelketan, alebin mailan. Anartz Olano eta Mikel Sagastibeltza, Aurrera taldearen izenean, finalera ailegatu ziren, baina ezin izan zituzten Burlatakoak garaitu.

## Mus txapelketa

Pake-Toki elkarteak ur-

tero antolatzen duen mustxapelketan Miguel Mari Begiristain eta Miguel Zabaleta atera ziren irabazle apirilaren 1ean jokatu tako saioan.

Bestalde, dagoeneko ohitura bihurtu den emakume afaria egin zen apirilaren 8an.

## Bataioak

Aste Santuan, Larunbat Santuarekin aur-



ARGAZKIA: JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

## Eskolen arteko topaketarako prestatzen

Areso, Goizueta, Arano eta Leitzako haurren aurtengo topaketa Goizuetan izango da, eta herriko guraso eta ume taldea bisita bueltatzeko prestatzen ari dira.

tengoan berezitasun bat izan genuen herrian: le-

henengo aldiz bataioak ospatu ziren gaubelan.

Jon eta Ibai izan ziren bataiatuak.





## Artesiagako Magnesita

### Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua

Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore



ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.



## GOIZUETA

# Herriko eta Leitzza-Aresoko eskolen arteko topaketak ospatuko dira larunbat honetan

Eskolako haurrek Korrika Txikia egin zuten martxoaren 30ean

## Esteban AROTZENA

Gure eskualdeko hiru eskoletako haurrak eta gurasoak herrian elkartuko dira larunbat honetan, hilak 21, dagoneko ohiko bihurtu diren topaketen zortzigarren edizioan.

11:30ean dute hitzordua goizuetarrek, aresoarrek, leitzarrek eta aranoarrek, ordu horretan hasiko baitira «Joko kooperatibo eta betikoak». Kalejira eginen dute ondoren herriko txistulariekin eta Leitzza eta Aresoko dantzariekin, eta herrian barrena ibilitakoan, Xalto eskolako jangelan bazkalduko dute. Arratsaldean hainbat jarduera izanen dituzte Ganbaran. Txokolatadarekin eta

plazako agurrarekin bukatuko dira zortzigarren topaketa hauek. Lau herrietako prebentzio programak eta hiru eskoletako guraso elkarrekin dira jardunaldiaren antolatzaileak.

## Korrika Txikia herrian

Eskolako umeez beste urrats bat eman zuten euskararen alde martxoaren 30ean egin-dako Korrikarekin. Hasi-er batean, asmoa herri guztian egitea bazen ere, eguraldi txarra zela eta eskolako frontoian egin zuten. Apirilaren 4ean, berriz, oporrei hasiera ezin hobea eman asmoz, ikasleek prestatutako antzezlanak izan ziren. Arrakasta erabatekoa izan zen.



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA ETA MAITANE APEZETXEA

## Herriko bi bikotek txapelak eskuratu dituzte Belateko pilota txapelketan

Belatek antolatutako pilota txapelketan izena emandako Umore Onako bi bikotek zapelak lortu zituzten martxoaren 31n Lesakan jokaturako finalerako. Salaberria-Apezetxeak Ultzamako Iribarren eta Gaskueri irabazi zieten 18 eta 10. Arotzena-Etxeberria, berriz, 18-16 nagusitu ziren Irurtzungo Zelaia-Igarturen kontra.



## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>☛ Langile autonomoak</li> <li>☛ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>☛ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☛ Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☛ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☛ Kontabilitateak</li> <li>☛ IVA eta IRPF</li> <li>☛ Errenta aitortpenak</li> <li>☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

artekari@artekari.com

**LESAKA:** Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

## BORTZIRI

### UNSION ANAIAK

Sukalderako altzariak

Berru utzea • LESAKA  
 Tel.: 948 637 206 • 607 226 881 • Fax: 948 637 511





## ABERASTASUNA

→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen**

sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak,

eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniariak, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegi sektorea.

→ Baztango gazteriari **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko bertze eskualdetara joan behar izatea saihestuz.

## INGURUGIROA

→ Artesiagako Magnesitarekin lurzorua eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarrizatuak diren soroak erdietsi eta azienda azkarragoak.

→ **Ingurumen kalitatearen kontroleko filtro bikoitza** pasa beharko du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ **Teknologiari aurreratuena ingurumenaren zerbitzura.** Uhal garraiatzailen karentatzeak, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratze dinamikoak bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.



## ETORKIZUNA

→ Artesiagako Magnesitak errelebu emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.



→ **Epe ertain eta luzerako proiektua.** Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epea bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jarduera abikitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.



**Artesiagako Magnesita**

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

## LEITZA

# Landa Goikoa eta Landa Behekorako proiektua aztertzen ari da Udala

Promociones y Servicios Inmobiliarios Goikoen proposamena da



## Joseba URKIOLA

Oraingo plan orokorrak aipatutako eremu horietan gabeziak zituela-eta erabaki zuen Udalak Promociones y Servicios Inmobiliarios Goiko enpresaren proposamena aztertzea. Patxi Saenz alkateak jakinarazi digunez, proiektua oraindik ez dago onartua, «udal arkitektoen txostena, hitzarmen urbanistikoa eta uholde plana itxi gabe daudelako». Gisa berean, herritarrekin bilera ireki bat egiteko asmoa ere badagoela esan digu, eta hasierako onespena legealdi honetan hartu nahi dela.

## Korrika Txikia

Aurtengoan, Leitzak ez du 15. Korrika herriko kaleetan igarotzen ikusi. Halere, honek ez du esan nahi herriak hartuemanik izan ez duenik. Adibiderik argiena, martxoak 29 arratsean eginiko Korrika Txikia.

Eguraldia lagun izan ez arren, herriko gazteak «ttipi-ttapa, ttipi-ttapa korrika» oihukatuz ibili ziren. Helbururik garrantzitsuena lortu zuten: euskararen alde korrika egitea. Dena den, leitzar ugarik Lekunberrri, Irurtzun edota Iruñean hartu zuten parte AEKren Korrikan.

## Haur Kantu Jaialdia

Leitzako gazte batzuk present izan ziren Iruñeko Gaiarren egindako azken saioan, apirilaren 1ean. Bakarka, Nahia Barriola eta Garazi Erbiti. Taldeka, Andele, eskolako 6. mailako taldea. Azken saioko partehartzaile guztiek bezala, aipamen bereziak jaso zituzten: Nahari «interpretazioan heldutasuna» nabarmendu zioten. Garaziri, «bakarlari gisa erakutsitako kalitateak». Andelek «koreografia egokia eta graziplazartzearen» aipamena jaso zuen.

## Ipuin lehiaketa

Leitzako Kultur Taldeak, 16 urtetik gorako herritarrentzako ipuin lehiaketa antolatu du. Orain bizpahiru urte, gisa honetako ekitaldi bat antolatu eta jarraipenik izan ez bazuen ere, berriro ere jaio da. Lanak Maimur edo Astiz herriko liburudendetara eraman beharko dira, apirilaren 20a baino lehen.

Hilaren 28an, berriz, ekitaldi berezi bat egingen da, eta bertan jakinaraziko da lehiaketako irabazlearen izena. Aipatu, lehiaketan parte hartzen duten lan guztiak liburu batean bildu eta herriko udal liburutegira eramanen dela.

## Villa Paulina bota dute

Gregorio Sagastibeltzak orain 86 urte eraikitako Villa Paulina indusmakina batek bota zuen martxoaren 30ean. Eraikinarekin, herriko historiaren zatitxo bat ere suntsitua izan dela esan daiteke. Orain egunetik egunera gehiago ziprintzen gaituen modernitatearen isla: Villa Paulinaren ordezkari 11 etxebizitza. Bestalde, zine aldeko bihurtzea zabaldu eta aparkaleku berria eraikiko da.



## PERTSONAIA

Iera AGIRRE

## Euskal Herriko Pala Txapelketan irabazle

Iera Agirre leitzarrak Euskal Herriko III. Pala Txapelketa irabazi zuen martxoaren 10ean. Aurreko alean, berri hau aipatu genuen baina argazkian ageri zena ez zen Iera, Saioa Iraola baizik. Oraingo honetan ageri dena da Iera Agirre.

## Gaztetxearen jarduerak

Atakabeltzak apirilera-ko jarduera ugari antolatu ditu. Zine emanaldiak dagokionez, datozten asteetan «Behiak» eta «Bailame el agua» programatu ditu, eta hilaren 27rako Partxis Txapelketa. Kultur Astearen harira, hasiak dira tailerrak prestatzen.

## Bukatu da zine denboraldia

«El Niño» filmak eman dio bukaera urrian hasitako denboraldiari. Orohar, denetarikoko filmak ikusi dira, eta aniztasun horren barnean, Oscar sarietako batzuk: Scorsesearen «Infiltrados» eta Guillermo del Toro mexikarraren «El Laberinto del Fauno».

**ttipi**  
**ttapa**  
☎ (0034) 948 635458

**gaztelu scl**  
iturgintza  
kalefakzioa • saneamendua • gasa  
Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa  
Eraikuntza  
Hirigintza  
Udal-ohikularitza  
Celia Lana Ranz  
Huarle Gotzai 7 - 31860 Leiza  
645098478 tel



Gastronomia



2007ko apirilaren 19a

# gastronomia errezeta bilduma

Amezti  
Antxitonea  
Benta Miguel  
Donamariako Benta  
Etxalarko Benta  
Herriko ostatua Donamaria  
Herriko ostatua Etxalar  
Herriko ostatua Ituren  
Kasino  
Lugarana  
Martiko  
Zubiondo



	ENTSALADAETA SARRERAK
	HARAGIAK
	POSTREAK

# Aurkibidea

	Ahate eta onddo kaneloia gazta parmesanozko entsaladarekin AMEZTIA JATETXEA Doneztebe ..... 25
	Ahutz-gaztagainerrezko entsalada fruitulehoretan gerezibeltzeko konfitura ozpin-olioarekin BENTAMIGUEL JATETXEA Ibañeta ..... 25
	Ahutzentsalada tomate, sagar eta onddoekin. HERRIKOOSTATUA Etxalar ..... 27
	Zainzuriberoak Urdaiazpikokremarekin HERRIKOOSTATUA Ibañeta ..... 25
	Txerri-hankak odolkia, pinazieta kanelarekin beteak DONAMARIA KOBENTAJATETXEA Donamaria ..... 27
	Bildotsatxilindronean HERRIKOOSTATUA Donamaria ..... 27
	Iberiar zerrimasailak bere saltsan azenariopurearekin ZUBIONDO SAGAR DOTEGI JATETXEA Bera ..... 27
	Aingeru torrada esne-gainarekin KASINO JATETXEA Lesaka ..... 29
	Gaztatarta ANTXITONEA JATETXEA Elizondo ..... 29





## AMEZTIA JATETXEA

## Doneztebe

### Ahate eta onddo kaneloia gazta pamesanozko entsaladarekin

**OSAGAIK** (4 pertsonentzat):  
• Pasta txikiak 4 kaffa

**BETEGARRIAREN OSAGAIK:**  
• 300gr. ahate konfitatua karagi  
• 10gr. fide - Gatza  
• 100gr. txemi-kantua  
• Piperbeltz zurri zerbua

**SALTSAAREN OSAGAIK:**  
• Haragi xaboi - 50gr. ondo  
• Tipuleta xaboi - Gurina  
• Julana perreila - Tipuleta xaboi

**ENTSALADAREN OSAGAIK:**  
• Letxu ezberdinak - gazta  
• Olibo olio - Jerez-ozpina  
• Gatza pamesanozko zalfuak

#### NOLA PRESTATU:

Betegariaren osagai guztiak nahasi, pasta xafien gainetik banatu eta kaneloi forma emanez kiribildu.

Bertalde, onddoak eta tipuleta gurinarekin saltatu, su ezian erregosi eta haragi saldarekin busti. Kaneloiak laberako azpil batean jarru, saltsa gainetik bota eta labera sartu (15 minutu 150 gradutan).

Katilu batean letxuak olio-ozpina eta gaztarekin nahasi. Plater batean kaneloia jarru eta azpileko urina gainetik bota. Ondean entsalada pixka bat jarru eta honen gainean gazta zatiak.



Ameztia karrika  
DONEYTEBE  
Tfnoa: 948 451 902



## BENTA MIGUEL JATETXEA

## Ibardin

### Ahuntz-gazta gainerrezko entsalada fruitu lehor eta gerezi beltzezko konfitura ozpin olioarekin

**OSAGAIK** (4 pertsonentzat):  
• 1 eskarola  
• 1 Yemako txakoria  
• Berro edo balerianela eskakada bat  
• 25gr. Maltz-pasa  
• 25gr. Oregi  
• 25 gr. almendra txigorta  
• 25 gr. pinazi txigorta  
• 25gr. Pistatxo  
• 4 ahuntz-gazta zorra bihild

**OSPIN-OLIOAREN OSAGAIK:**  
• 3 kolorekako gerezi beltzezko konfitura  
• 4 kolorekako mugurdi-ozpin  
• 100ml. Olibo olio  
• Gatza.

#### NOLA PRESTATU:

Eskarola eta txakoria garbitu eta puska txikietan zatitu. Ondoren berro edo balerianela garbitzen ditugu eta katilu batean erreserbatzen ditugu. Honi gainerako osagaiak gehituko dizkiogu: mahaspasak, orejoak, almendra txigortuak, pinazi txigortuak eta pistatxoak. Fruitu lehor batzuk platera apaintzeko gordeko ditugu. Ozpin-olioa prestatzeko gerezi beltzezko konfitura epelduko dugu eta gatza, mugurdi-ozpina eta olibo guburkina gehituz joanen gara, ozpin-olio lodia gelditu dadin emulsionatuz. Ondoren labera gainerretzeko posizioan piztuko dugu. Ahuntz-gazta xerrak labeko erretiluan jarru. Labera ongi berotu denean gazta sarbuko dugu. Gazta berotasunarekin urtu ez dadin 2 minutu gero gorabehera kontuko dugu labean. Gornbura eta kurruskaria gelditu behar da.

#### AURKEZPENA:

Platerean letxu nahaska fruitu lehorrekin jarru. Ozpin-olio epelarekin ondu, ahuntz-gazta xerrak gainean jarru eta erreserbatuta dauzkagun fruitu lehorrekin apaindu. On egin!



Ibardingo gaina  
BERA  
Tfnoa: 948 631 209  
bentamiguel@cin.es



## HERRIKO OSTATUA

## Ituren

### Zainzuri beroak Urdaiazpiko kremarekin

#### OSAGAIK

- Lau zainzuri eder
- Arroltzea
- Letxu edo uraza gorria
- Azenarioa
- Esne-gain likidoa (200ml)
- Euskal Xerriaren urdaiazpiko hiru xerra

#### NOLA PRESTATU:

Zainzuriak arrautza-irinetan pasatu, frijitu eta xukatu paper xurgatzailearekin. Urdaiazpikoa zatitu eta zartaginean paratu esne-gainarekin batera eta irakinarazi pixka bat agortu arte.

#### AURKEZPENA:

Platerean lehenik letxu gorria paratu, gainean bi zainzuri eta hauen gainean bertze bi zainzuri gurutzean. Esne-gaina gainetik bota eta urdaiazpiko eta azenario laminekin apaindu.

Herriko Plazan  
ITUREN  
Tfnoa: 948 451 430



## LUGARANA JATETXEA

## Dantxarinea -Urdazubi

### Entsalada epela onddo, mi-cuit eta ahate urdaiazpikoarekin

**OSAGAIK** (4 pertsonentzat):  
• 100 gr onddo konfitatua  
• 1 medallioi Martiko ahate  
• Foie-gras mi-cuit (90gr)  
• 50gr Martiko ahate urdaiazpikoa  
• 1 tomate entsaladarako  
• 1 letxuga frantses  
• 1 hartiz hosto  
• Olibo  
• Modenako ozpina  
• Gatza

#### NOLA PRESTATU:

Tomatea zuritu eta pipitak kendu; zati txikietan puskatu eta nahasi, onddoak izan ezik. Onddoak zartagin batean gorritu, minutu batez. Zerbitzatu behar den unean onddoak entsaladari bota.



VENTA PEIO  
Dantxarinea  
URDAZUBI  
948 599 400



**ALTXUNEA ERRETEGIA**  
ITUREN

**PARRILAN ESPEZIALIZATUAK**

Kontsejo kalea 27 • ITUREN  
Tfnoa: 948 450 410

Baztango aratxea

**okaNe**

**HARATEGIA / URDAITEGIA**  
Jose Luis & coro

Kanflonberri, 12  
31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa/Faxa: 948 630 018

**ERROTAZAR**  
harategia

*Bertako produktuak*

Eztegara, 3 • BERA • Tfnoa/Faxa: 948 630 088

**BEOLA**  
Posada • Palacio

Zure ezkontza egunean,  
otordurik berexiena.

Karrika Nagusia, 1 • ALMANDOZ • Tfnoa: 948 585 002

**ESKISARoi**  
JATETXEA

Jaime Urrutia • ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 013

Urrekin egina  
Tartak eta pastelak  
Etxean egindako izozkia

Gozotegia

**Malkorra**®

Santiago, 15 • Tel: 948 580 061 • ELIZONDO

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK**

Parrilan egindako haragi eta arrainak

Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378  
**ARIZKUN**





## HERRIKO OSTATUA

Ettxalar

### Ahutz entsalada tomate sagar eta ondoekin

#### OSAGAIK:

- Patata
- Kolorezko letxuga
- Tomatea
- Sagarra
- Onddoak
- Gurina
- Ahuntz gazta
- Iberiko Urdaiatzpikoa
- Piñonak
- Tipula
- Olioa
- Ozpina

#### NOLA PRESTATU:

Aide batetik patata konfitatu, eta plateraren basean jarri. Ondoren honen gainean koloretako letxua jarri, eta aurretik guriñean salteatzen dugu tomatea, sagarra eta onddoa eta molde baten bidez letxuaren gainean jarri. Ondoren plantxa bero dagoenean gazta plantxatu eta aurreko osagaien jarri. Olio-ozpina egiteko piñonak labean erre eta bertze aldeak tipula fin-fina moztu, urdaiatzpiko pikatua erantsi eta piñonak erre eta daudela moztu eta gehitu. Eta ondoren olio eta ozpiña bota.



Andutzeta 15,  
ETXALAR  
Tfnoa: 948 635 450



## HERRIKO OSTATUA

Donamaria

### Bildotsa txilindronean

#### OSAGAIK:

- Bildotsa
- Patatak
- Oliba olio
- Baratzuria
- Pipermina
- Ardo zuria

#### NOLA PRESTATU:

Bildotsa zati txikietan xehatu eta zartagin batean frijitu. Beste zartagin batean aurretik dadotan xehatutako patatak ere frijitu. Hirugarren zartagin batean baratzuria eta pipermina suezfitzen jarriko dugu (baratzuria kopurua daukagun bildotsaren arabera izanen da) eta ondoren hori ardo zuria txorrotada bat gehituko diogu. Gero bildotsa eta patatak baratzuriarekin nahasko ditugu gustua hartzeko. Buztinezko kazola batean jarri eta zerbitzatzeko prest dago.

Donamaria  
Tfnoa: 948 450 127



## ZUBIONDO SAGARDETEGI JATETXEA

Bera

### Iberiar zerri masailak bere saltsan azenario purearekin

#### OSAGAIK (6 pertsonentzat):

- 8 zerri masail
- 1 tipula
- 1 porru
- 1 azenario
- 1 brandy kopa
- 1 irin kollarakada
- 1 edalontzi ardo
- 2 edalontzi ur

#### NOLA PRESTATU:

Zerri masailak ongi gorritu ondoren, baratzkiak erantsi eta utzi sutan denak kolore gorritua hartu arte. Irina, brandya, ardoa eta ura gehitu eta 45 minutu egosten utzi. Salda iragazi, murrizten utzi eta masail egosiak sartu.

Azenario purea prestatzeko, 6 azenarioak uretan ongi egosi gatz pixka batekin. Bi baratzuriarekin olio-errea egin eta azenarioarekin nahasi eta dena irabiagailuarekin pasatu.

Zerri masailak azenario purearekin lagunduta zerbitzatu.

Alasta karrika - Alkaiaga  
Sarrera BERATIK  
Tfnoa: 948 625 472



## DONAMARIAKO BENTA JATETXEA

Donamaria

### Txerri-hankak odolkia, pinazi eta kanelarekin beteak

#### OSAGAIK (4 pertsonentzat):

- 4 txerri-hanka
- Tipula
- 4 litro pinazi
- Erramu hostoa
- Arroz-odolkia
- 20gr. pinazi
- Kanela gioka bat
- Perretsil azetosa

#### NOLA PRESTATU:

Txerri-hankak erditik moztu eta tipula, litzea eta erramuarekin irakitan jarri 2 orduz gubi gorabehera. Egositu daudenean hezurra kendu. Betegarria prestatzeko: arroz-odolkia, pinazi gorrituak eta kanela salteatu. Txerri-hankak tiratu eta belegari hodi bat jarri. Goxoki edo hodi zilindrikoaren forma emanez film gardenarekin bildu eta 24 ordutan hozkailuan eduki. Ondoren filma kendu, oliba oliorekin salteatu eta 15-20 minutuz labean eduki. Atera eta plateraren jarri.

Txanpinoi saltsa egiteko: 5 minutuz tipula erdia egosi. Txanpinoiak gehitu eta beste 5 minutuz egiten utzi. Hori ardo zuria gehitu eta erdira arte uritu. Hori fondoa edo haragi salda gehitu eta 10 minutu irakin. Gatza eta piperra puntuan dauden probatu eta txerri-hankak sartu.

Hornigaia: uxalarekin glasatutako txuletak.




2 jangela  
Itxita: Igande gaua eta astelehena.  
Eguberrietan itxita.  
urtarrilaren 10 arte

Bentak • Donamaria  
Tfnoa: 948 450 708





C/ JAIME URRUTIA, Nº. 35. TEL. 948 58 01 28. ELIZONDO (Navarra)



**Zalain  
jatetxea - hostala**

Zalain z/g • Bera-Nafarroa  
Tfnoa: 948 63 09 67

- Sasoian sasoiko platerak
- Ospakizun berezietako jantokia
- Menua eta karta



**ELBETEKO OSTATA  
-POSADA-**

- 7 logela rustiko, bakoitz bere bainugelarekin
- Eguneroko menuak
- Asteburuko karta
- Enpresa bazkariak
- Famili otorduak
- Bataioak
- Jaunartzeak
- Menu berexiak...

Karrikaundi kalea  
**ELBETE**

JATETXEA 948 581 383 • HOSTALA 948 581 519  
www.posadaelbete.com • info@posadaelbete.com



**ARKUPE**  
goxotegi • kafetegia

Tarta bereziak • Etxeko izozkiak  
Arkupe txokolatea: kakaotik egindako txokolatea

IRURITA • Tfnoa: 948 452 021  
ELIZONDO • Tfnoa: 948 452 393





**ANTXITONEA**  
Trinkatona

## ANTXITONEA JATETXEA

Elizondo

### Gazta tarta

#### OSAGAIK

- Philadelphia gazta
- Esne-gain likidoa
- Melokotoi-konfitura
- Galleta
- Gurina
- Magurdi mermelada

#### NOLA EGIN:

Osagai guztiak elkarrekin nahasten dira. Laberako molde bat urinezatu egiten dugu eta hasiera egindako nahasketa bertan ixuriko dugu. Labean 30 minutuz sartu 180°C. Behin amaituta egun bat hozten utzi.

#### AURKEZPENA:

Atera moldetik, eta apaindu marmelada eta esnegainarekin.



Braulio Iriarte  
ELIZONDO  
Tfnoa: 948 581 807



## KASINO JATETXEA

Lesaka

### Aingeru torrada esne-gainarekin

#### OSAGAIK


- 7 arrautza-gorringo
- Arrautza oso bat
- 250g.azukre
- 1/4 l. ur
- 1/2 l. esne-gain
- Harrotu azukreduna.

#### NOLA PRESTATU

Litro bateko kapazitatea daukan flan moldeka karamelatu. Alde batetik arrautza-gorringoak eta arrautza osoa ongi irabiatu. Bertzetik, azukrea eta ura 5 minutu irakiten jarri. Azukrea eta urarekin egindako nahaskia epeltzen denean arrotzeekin nahasi. 20 minutu 150°tan egosi ur-bainuan. Hozten denean moldetik atera eta esne-gain harrotu hotzarekin zerbitzatu.



Plaza Zaharra  
LESAKA  
Tfnoa: 948 637 287



[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

- ZAILTASUNA:  
Oso errexa
- DENBORA:  
4 segundu
- OSAGAIK:  
4 klik

### Errezeta bilduma

#### NOLA EGIN:

1. Interneten sartu, [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) helbidean
2. Bertzerik atalean klikatu **gastronomia** botoian.
3. **Aurkibidean nahi duzun atalean klikatu:** Entsaladak, lekaleak, barazkiak, zopak, arrozak, pastak, arrainak, itsaskiak eta moluskoak, haragiak, frutak, postreak.
4. eta ...gozatu aurkituko dituzun errezeta guzietan.
5. **On egin!**



Andutzeta, 12  
ETXALAR  
Tfnoa: 948 635 458

**BELARRA**  
JATETXEA



# BELARRA

## JATETXEA

Tfnoa: 948 450 306 • DONEZTEBE

# ETXEBERTZEKO

## Borda



Etxeko arrain haztegia

Etxeko produktuekin prestatutako bazkariak  
Infernuko errotara bisita (20minututara)  
Frontoia, terraza

Tel.: 948 580 400 - Orabidea auzoa - LEKAROS



# ARMUA

Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. km  
948 599 131 - URDAZUBI

# PIKABEA

harategia • urdaitegia  
*janari prestatuak*

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284



Plater konbinatuak  
Pintxoak  
Bokatak  
Menua



# udana

salazones

Importazioko bakailu gazitua, gazitua eta konjelatua  
Alkaiaga ind. • Lesaka • 948 631 536 • Fax: 948 631550  
bacaloo@salazonesudana.com • www.salazonesudana.com



# LA VILLA

## JATETXEA

Janari tradizionala • Egunero irekia  
Ortzirala, larunbata eta igandetan afariak  
Menua • Karta

IGANTZI • Tfnoa: 948 63 72 90 (Erreserbak egiteko)





## Foie torrada, piñoi eta mahaspasa saltsarekin

### OSAGAIAK:

- 125g. Foie fresko
- 25g. Sagar-konpota
- Moldeko ogia
- 20cl. Oporto .
- 30cl Haragi salda .
- 20g. Tipula 20g.
- 15g. Piñoiak
- 20g. Mahaspasa
- 20g. Azukrea

Moldeko ogia txigortu eta itxura biribilean moztu. Gainean sagar-konpota jarri. Foiea gatz-piperztatu, irinean pasa eta zartagin bero bero batean buelta eta buelta eman txigortu arte. Paper zurgatzaile batekin lehortu eta sagar purearen gainean jarri.

### OPORTO SALTSA:

Tipula pikatu eta ondoren oporto gehitu, 20min. murrizten utzi. Ondoren haragi salda gehitu eta 20min. murrizten utzi: azukrea gehitu eta gatzaren puntua probatu. Irabiagailuan pasa eta ondorekin txano edo iraztontzi batean. Bertze eltze batean jarri eta piñoi txigortuak eta mahaspasak gehitu eta irakiten utzi (lodi samarra gelditu behar du). foie torrada 3min. 150°tan berotu eta oporto saltsa gaintetik bota.

Tfnoa: 948 635 000 • www. etxalar.com



Ahatekietan adituak  
eta arituak

Martikorekin  
erraza da  
gourmet  
ona izatea



## Ahate-magret carpaccina mi-cuit txirbilekin

### NOLA EGIN

Magretari gurina kendu, eta ahalik eta zerrarik finenetan zatitu. Erretilu batean jarri eta olio-ozpina bota. Mi-cuitari zuritzeko tresnarekin txirbil formak eman; magretaren gainean jarri. Tipulina gaintetik hautsezatu.

### OSAGAIAK (4 pertsonentzat)

- Martiko ahate magret
- Martiko ahate foie-gras mi-cuit medaloi bat (90 gr)
- Ozpín-olioa
- Olio
- Limoia
- Gatza
- Olio-ozpinari ondoak edo zizak zatituta nahasten ahal zaizkio, edo tipulin zatitua.

DENBORA : 15 minutu  
KALORIAK: Gutxi



# Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea

## Jakinarazpena

2007ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

### 2007ko TASAK

#### ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	EUROAK	KONTZEPTUA	EUROAK
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez: . . . . .	69,10	<b>Landetxeak.</b> . . . . .	138,30
Zaborrontzira 200 metrotik		Zaborrontzira 200 metrotik	
500 metrora dauden baserriak . . . . .	58,80	500 metrora dauden landetxeak: . . . . .	117,60
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak . . . . .	48,40	Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak: . . . . .	96,80
<b>1. Merkataritza eta zerbitzuak.</b>		<b>1. Hostala.</b> Hamar logela edo gutxiagokoak: . . . . .	482,50
Elikagaien eta etxeresnen sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegia, ileapaindegia, lan bulegoak: . . . . .	69,10	<b>2. Hostala.</b> Hamar logela baino gehiagokoak: . . . . .	689,40
<b>2. Merkataritza.</b> Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), etxeresnen dendak eta farmaziak: . . . . .	135,60	<b>Merkataritzako saltokiak,</b> opariak bakarrik saltzeko: . . . . .	344,30
<b>3. Merkataritza.</b> Autozerbitzuak: . . . . .	206,90	<b>Merkataritzako saltokiak,</b> janaridenda edota ostatudunak: . . . . .	689,40
<b>1. Ostatua.</b> Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m <sup>2</sup> ko edo gutxiagoko azalera dutenak: . . . . .	137,80	<b>Merkataritzako saltokiak,</b> jatetxedunak: . . . . .	1.034,20
<b>2. Ostatua.</b> 30m <sup>2</sup> baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak: . . . . .	276,00	<b>Lantegiak,</b> lau langile bitarte: . . . . .	69,10
<b>3. Ostatua.</b> Pub eta diskotekak: . . . . .	344,80	<b>Lantegiak,</b> 5-10 langile bitarte: . . . . .	137,80
<b>1. Jatetxea.</b> Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkartea gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: . . . . .	344,80	<b>Lantegiak,</b> 11-30 langile bitarte: . . . . .	344,80
<b>2. Jatetxea.</b> Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: . . . . .	620,70	<b>Lantegiak,</b> 31-60 langile bitarte: . . . . .	689,40
		<b>Lantegiak,</b> 60-150 langile bitarte: . . . . .	1.034,20
		<b>Lantegiak,</b> 150-300 langile bitarte: . . . . .	1.959,60
		<b>Lantegiak,</b> 300 langile baino gehiagorekin: . . . . .	2.888,40
		Zuzenean zabortegira botatzea; m <sup>3</sup> bakoitzeko . . . . .	29,80
		Neumatikoak zabortegian uztea; kilo bakoitzeko . . . . .	0,30
		Norberaren erabilerarako . . . . .	670,00

#### ORDAINTZEKO ERA

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:**

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:**

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

#### ORDAINTZEKO EPEA

- 2007ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2007ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2007ko apirilaren 1ean  
Presidentea  
Patxiku Irisarri Elizagoien



## KULTURA

# Hainbat 'aipamen berezi' jaso dituzte Baztan, Leitza eta Berako taldeek Haur Kantari Jaialdian

Apirilaren 1ean egindako azken saioan jende aunitz bildu zen Iruñeko Gaiarren

### ttipi-ttapa

Joan da Haur Kantarien Jaialdiaren aurtengo edizioa ere. Elizondon ireki zituen atak, eta Iruñeko Gaiarre antzokian itxi apirilaren 1ean. Azken saio honetan aitzinekoetan nabarmendutako partaideak aritu ziren, tartean Bortziriak, Baztan eta Leitzaldeko hainbat lagun. Aipamen bereziak jaso zituzten.

Taldean eta bakarka aritu ziren eskualdeko haurrak. Taldeka, Baztango Ttuku ttukuk «Goi-zian argi hastian» abestiarekin ahoskera onenaren aipamena jaso zuen. Baztango Xixo taldea, berriz, «Arratsalde honetan» kantuarekin, giro ona sortzeagatik nabarmendu zen. Berako Axuriak taldeak «Maitasun hitzak» kantatu zuen eta aurkezpen originalaren eta ahots garbiaren aipamena jaso zuen eta Leitzako Andele taldeak «Irrifarrea» kantuarekin koreografia eta bizitasunarena.

Bakarka, berriz, Berako Iزارo Iriartek «Xalbadorren heriotzean» abestiarekin interpretatzerakoan erakutsitako sentimenduengatik jaso zuen aipamena. Kantu berarekin aritu zen Leitzako Nahia Barriola ere, eta bere interpretatzeko heldutasuna nabarmendu zuten. Garazi Erbiti leitzarrek «Mendian gora harritza» abestiarekin bakarlarari bezala erakutsitako kalitatearengatik jaso zuen aipamena.



## malgutasuna da nire aukera.

Malgutasuna nahi baduzu, Nafarroako Rural Kutxa da zure Kutxa. Zure beharrak ezagutzen dituelako eta haiek beti era onenean asetzen dituzten produktu eta zerbitzuak eskaintzen dizkizulako.

[www.ruralvia.com](http://www.ruralvia.com)  
tel.: 902 310 902

nire aukera



## AZPIEGITURAK

# 458.000 euroko dirulaguntza banatuko da eskualdeko natur guneen egoera hobetzeko

Bertizko Natur Parkea, Leurtzako urtegiak eta Aritzakun-Urritzate dira onuradunak

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak *La Caixa*rekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bitartez dagoeneko 1,2 milioi euroko dirulaguntza banatu da Nafarroako 13 naturgunerentzat, egoera hobetzeko. Horien artean eskualdeko hiru natur gune daude, eta guztira 458.820,29 euroko dirulaguntza emanen da. Bertizko Natur Parkearen kasuan bi proiektu daude eta guztira 148.897,43ko laguntza banatuko da; Leurtzako urtegien kasuan, 182.842,24koa eta Aritzakun-Urritzaten, 127.080,62 eurokoa.



NATUR GUNEA	ZERTARAKO	AURREKONTUA
Bertizko Natur Parkea	Sarbideak egokitu	97.153,76
Bertizko Natur Parkea	Zentzumenezko ibilbidea eta kartelak	51.743,67
Leurtzako urtegiak	Sarbideak egokitu	182.842,24
Aritzakun-Urritzate	Gorramendiko larreak eta hondarrak berreskuratu	127.080,62

## Nafarroako Gobernuak onartu du Azpiegitura Planaren bigarren zatia

Hemen eginen diren inbertsio gehienak argiztapenarentzat dira, Oitzen izan ezik

### ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 12.081.318 euroko dirulaguntza banatuko du Nafarroa osoan hainbat udaletan. Aipatu laguntza Azpiegitura Planaren bigarren Planaren banean sartzen da, 2005-2008ko epeari dagokiona. Tokiko azpiegiturretan epe horretan guztira egin den inbertsioa, berriz, 216 milioi eurokoa da. Ttipi-Ttapak hartzen

duen eskualdeari dagokionean, sei herri dira onuradunak eta guztira, 459.682,4 euroko inbertsioa aurreikusita da.

Horietatik gehienak argiztapena berritu edo zabalteko erabiliko dira, Oitzen kasuan izan ezik, hemen ur depo-

situ berria egin nahi baita.

Gobernuak jakinarazi duenez, dokumentazioa aurkezteko

epea, erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik lau hilabetera akituko da.

HERRIAK	ZERTARAKO	AURREKONTUA
Oitz	Ur depositu berria	79.107,06
Zugarramurdi	Herriko argiztapena zabalteza	73.237,11
Elizondo	Braulio Iriarte eta Jaime Urrutia karriketako argiztapena berritu	86.065,29
Doneztebe	Oteiza auzoko argiztapena	108.058,30
Goizueta	Apezetxea kaleko argiztapena	16.831,66
Arano	Goiko, Beheko eta Suro auzoko eta Benta Berriko argiztapena	96.382,98



# Ticpyme Montaña

Formación y asesoramiento  
gratuito en nuevas tecnologías  
para la empresa

*Enpresentzako  
Prestakuntza eta  
Aholkularitza teknologia berrietan*



El programa Ticpyme Montaña surge para proporcionar a las pymes de la zona norte de Navarra una herramienta que les permita establecer y gestionar el proceso de implantación de las nuevas tecnologías en su empresa, a través de **talleres prácticos y asesoramiento individual**:

**Taller 1: Taller gestión hoja de cálculo.**  
**Taller 2: Taller comercio electrónico.**

*Ticpyme Montaña programa sortu da Nafarroako iparraldeko eteei beren enpresetan teknologia berriak ezartzeko prozesua antolatu eta kudeatzen utziko dien tresna bat eskaintzeko, **tailer praktiko eta aholkularitza indibidualaren bidez**:*

**1 tailerra: Kalkulu orria kudeatzeko tailerra.**  
**2 tailerra: Merkataritza elektronikorako tailerra.**

## Calendario previsto

## Aurreikusitako egutegia

Localidad Herria	Contenido Edukia	Fecha Data	Hora Ordua
Alkaiaga	Taller 1 - 1 tailerra Taller 2 - 2 tailerra	03/05/2007 08/05/2007	19:00 - 21:30 19:00 - 21:30
Aoiz Agoitz	Taller 1 - 1 tailerra Taller 2 - 2 tailerra	02/05/2007 07/05/2007	19:00 - 21:30 19:00 - 21:30
Arbizu	Taller 1 - 1 tailerra Taller 2 - 2 tailerra	24/04/2007 26/04/2007	19:00 - 21:30 19:00 - 21:30
Auritz/Burguete	Taller 1 - 1 tailerra Taller 2 - 2 tailerra	28/05/2007 30/05/2007	19:00 - 21:30 19:00 - 21:30
Elizondo	Taller 1 - 1 tailerra Taller 2 - 2 tailerra	16/04/2007 18/04/2007	19:00 - 21:30 19:00 - 21:30
Iciz Izize	Taller 1 - 1 tailerra Taller 2 - 2 tailerra	15/05/2007 17/05/2007	19:00 - 21:30 19:00 - 21:30
Leitza	Taller 1 - 1 tailerra Taller 2 - 2 tailerra	29/05/2007 31/05/2007	19:00 - 21:30 19:00 - 21:30
Sangüesa Zangoza	Taller 1 - 1 tailerra Taller 2 - 2 tailerra	23/04/2007 25/04/2007	19:00 - 21:30 19:00 - 21:30
Asesoramiento telefónico y on-line Aholkularitza telefonoz eta sarean		Mayo-Junio-Julio Maiatza-Ekaina-Uztaila	

Consultar lugar de celebración al realizar la inscripción.  
Galdetu non egingo den tailerra izena ematean.

## Información e inscripciones:

## Informazioa eta izen emateak:

**Alkaiaga - Elizondo - Leitza**  
Pilar Ordoki  
Tel. 948 625 122  
bidaso.aadmon@cederna.es

**Aoiz - Iciz - Sangüesa - Auritz/Burguete**  
Bakartxo Pozas  
Tel. 948 473 063  
pirineo.aadmon@cederna.es

**Arbizu**  
Oskia Lazkoz  
Tel. 948 567 010  
sakana.aadmon@cederna.es



## EZKURRA

# Udaletxearen teilatua eta fatxada konpontzen ari dira

Hainbat arlotan herriak gabeziak dituela diote zenbait herritarrek

## Fernando ETXEBERRIA

Udaletxea berritzeko lanak hasiak dira dagoeneko. Doneztebeko Elizaga enpresa ari da lan horretan, eta zehazki, teilatua eta kanpoko aurpegia konponduko dituzte. Badirudi obrak laster akituko direla, eta maiatzeko hauteskundeetarako itxura polita hartuko duela. Ia horrek herriko gaztedia Udalean lan egitera animatzen duen, hurrengo lau urteetan herriari bul-tzada emateko.

Izan ere, herrian gehienak ados gaude herriko gaietaz jendeak ez duela interes handirik eta hainbat betebeh-ar izanen dituela Udal berriak. Lehenik eta behin, eskola zahar-raren egoera. Ezin du horrela segitu eta nola edo hala zerbait erabaki behar da erori baino lehen.

Zabortege berri baten beharra ere badago herrian, jendeak bere zaborrak errekan bota ez ditzan. Aipatzekoa da, etxeetako hondakinak



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

**Udaletxea berritzeko obrak hasiak dira eta laster bukatuko dira.**

garbitzeko araztegi edo depuradora bat ere behar dela eta bat jartzeko exijitu beharko litzaiokela Nilsa erakundeari. Hartara, gure erreka txikiak ez luke aurpegi beltzik eta zikin-erakutsiko, bertara erortzen baitira hondakin zatiak.

## Bideak eta aparkalekuak

Herriko errepidean abiadura kontrolatzeko

neurriak hartzea ere beharrezkoa da. «Alonso-tarrak» edo kotxean azkar ibiltzen direnek gu-re bizia arriskuan jarri ez dezaten, beste herri askotan bezala oztopo-ak jarri behar dira bidean. Eta herriarenak edo Udalarenak diren bide-ak partikular bihurtzea ere ez guke inola ere onartu behar.

Aparkalekuaren afe-rra da aztertu beharreko beste kontua. Herrian

autoek aparkatzeko dituzten arazoei irtenbide-idea emanez, aparkale-ku berri bat egin behar-ko litzateke. Frontoian kotxeak uztea debeka-tu izanagatik ere, hain-beste kotxe dagoenez zaila izaten da leku li-bre bat aurkitzea, batez ere asteburuetan.

Azkenik, esan, men-diko aska batzuk berri-tzea ere komeni dela, ez daudelako egoera onean.

## BAZTAN

# Baztan Eguna egin nahi dute Mexikon maiatzaren 1ean

## ttipi-ttapa

Mexikon bizi diren baztandarrak ez dira guti, eta dagoeneko hasiak dira aurtengo Baztan Eguna prestatzen. Aitzineko urteetan bezala, maiatzaren 1ean izanen da..

Egun berezia, du-darik gabe, Baztango jendearentzat. Badira urteak besta hau antolatzen dela, eta ur-tetik urtera sendotuz joan da. Hastapene-tan, familia giroan egi-ten zen besta zena, gaur egun Mexikon bi-zi den baztandar ug-uriren bilgune bilakatu da.

Ekitaldiak DFko Euskal Etxean egingen dira, Mexikoko hiribu-ruan. Egunari hasiera emateko meza izanen da eguerdi partean, eta ondotik bazkaria egi-nen dute. Musean ere arituko dira eta ani-mazioa sortzeko ez da ez dantza, ez kanta eta ez musikarik faltako.

**ZOANSA**  
 SEAT VW HYUNDAI AUDI  
**MARKA GUZTAN KONPONKETA**  
 Banarta, 2 - Alkalaga industrialdea  
 LESAKA (sarrera Beratik)  
 Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

*Okindegia* *Jatetxea*  
**Uxoa**  
 OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
 JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)  
 Espezialitatea parrillan erretako jakietan  
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen errea,  
 goxo goxoa!  
 Ordoki Industrialdea  
 Tfnoa: 948 453 403  
 31713 ARIZKUN



## BAZTAN

# Florentino Goñik zinegotzi kargutik dimititu du hauteskunde bezperetan

EAKo exekutibarekin dituen desadostasunak arrazoitu zituen, zehazki zein arrazoi aipatu gabe

### ttipi-ttapa

Florentino Goñi udal-zinegotzi kargua utzi du. Halajakin arazi zuen apirilaren 11n prentsaren aitzinean egindako agerraldian. EAKo exekutibarekin dituen desadostasunak tarteko dimititu zuela erran zuen, baina nahiz eta argibide gehiago eskatu zitzaien, ez zuen arrazoi zehatzagorik eman nahi izan. Dena den, ez du guztiz baztertzeko etorkizunean berriro aurkezteko aukera.

Bertzalde, apirilaren 2an Baztango Udalak eta Junta Generalak, azken batzarrek egin zituzten, maiatzaren 27ko hauteskundeetan aitzineatik. 14 herrietako alkatetarako bi urteko kargua hartu zuten. Elbeten, ordea, alkatetarik gabe segitzen dute. Zerbait udal-zinegotzirekin

agurra ere orduan egin zen, ez baitira berriz aurkeztuko hurrengo hauteskundeetan.

Udal-batzarrean, 0-3 urteko haur-eskolako obra Iruñeko Moldadia enpresari eman zioten, 1.121.391,86 eurotan. Bera izan zen deialdira aurkeztu zen enpresa bakarra. Azkenik, Baztango Udalean ordezkariak duten alderdiek ez zuten harrobiaren inguruko iritzirik eman nahi izan. Ez EAK, ez UPNk ere.

### Saneamendu lanak Elbeten eta Elizondon

Elizondoko Giltxaurdi auzoko eta Elbeteko Elbetegaraia eta Autxitiako saneamenduko sare-horniketako obrak laster akituko dira. Lan hauek egin ondotik, Elizondoko Antzanborda

auzoa bakarrik geldituko da egiteko. Giltxaurdiko obrak 54.020,30 euroko aurrekontua dute, eta horietatik 35.586,66 Nafarroako Gobernuak ordainduko du. Elbetegaraia eta Autxitiako obrek 68.690,21 euroko gastua dute eta laguntzarekin 45.269,94 euro ordainduko da. Aipatutako bi proiektuek 2005-2008ko Tokiko Azpiegituren Planean sartzen dira, Erratzun lasterhasiko diren edateko ur sarearen berritze lanekin batera. Azken lan hauek, aitzinekoak bezala, Doneztebeko Obras y Preparacion de Terrenos SL enpresak egingen ditu.

Bertzalde, Erratzuko Argin baserrira joateko errepidea ere berrituko da, 38.760 euroko aurrekontuarekin.



### Baztandarren Biltzarrek badu afitxa eta aurpegia

Baztandarren Biltzarrek aukeratua du dagoneko 2007ko edizioa iragarriko duen kartela. Sortzez eta bihotzez katalana, baina 21 urterekin Elbetara etorri zen Siscu Simon Riverak irabazi du. Gaur egun Uharten bizi da, baina oraindik Baztanekin harreman handia mantentzen du. Duela hiru urtetik Iruñeko Bermer&Co diseinu enpresan egiten du lan.

Kartelaren izenburua «Ni behia, eta zu zer zara?» da, eta diseinu aldetik, aitzineko aldie-tako kartelekin konparatuz nahiko desberdina. 500 euroko saria jasoko du. Aurtengoan iaz baino lan kopuru gehiago aurkeztu dira, 30etik goiti.

Epaile lanetan bortz lagun aritu dira: Itziar Mena diseinugile eta argazkilaria (Foto Mena), Totu Iturzaeta diseinugilea (Kulturkari), Amaia Iturralde (joan den urteko kartelaren egilea) eta Gotzone Sanzberro eta Jexux Baylon (Baztandarren Biltzarreko marketin arduradunak).

*Maderas*  
**GOMEN**  
Tel: 948 580 645  
Zaldubia Industrialdea  
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

**ITURRALDE**  
pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967  
✉ maxene@terra.es

## BAZTAN

# Baztandarren bizitza eta ohiturak bilduz, «Baztan Solasean» liburua aurkeztu dute

Maite Lakar eta Ana Telletxea dira liburuaren egileak

## Maite OTEIZA

Mariano Izeta beka-  
ren laguntzaz, argital-  
pen berri bat atera be-  
rri da: «Baztan solase-  
an». Arizkunenean aur-  
keztu zuten Maite La-  
kar eta Ana Telletxea  
egileek euren liburua.  
Han izan ziren, bertze-  
ak bertze, Baztango  
Udalaren zinegotzi Iñi-  
go Iturralde eta Nafa-  
rroako Gobernuo Hiz-  
kuntza eta Unibertsita-  
teetako kontseilaria den  
Pedro Pegenaute.

«Baztan Solasean»  
liburuan, baztandarren  
bizitza, ohiturak, errito-  
ak eta egunerokotasu-  
naren historia bildu du-  
te egileek, 115 elkarriz-  
keta egin ondotik, Oro-  
nozetik Amaiurreraino,  
herri guztietako jende-  
rarekin solastuz.

Liburuak DVDa  
ekartzen du berekin, el-  
karrizketa guztiekin. El-  
karrizketatuek baldintza  
batzuk bete behar zituz-  
ten: 65 urtetik goitikoak  
izatea eta elkarrizketa-  
tua eta bere gurasoak



ARGAZKIA: ONDIKOL

«Baztan Solasean» liburuaren aurkezpen egunean, eskuinetik hasita, Ana Telle-  
txea eta Maite Lakar egileak, Pedro Pegenaute Hizkuntza eta Unibertsitateeta-  
ko kontseilaria eta Iñigo Iturralde Udaleko zinegotzia.

baztandarrak izatea. Li-  
burua dagoeneko sal-  
gai dago, 25 eurotan.

Hala ere, aurkezpe-  
nean interes gehien biz-  
tu zuena ez zen liburua  
bera izan; Pedro Pege-  
nauteren jarrera baizik.  
Bertaratutakoak agurtu  
ondotik —bereziki bere  
lagunak eta alderdiki-  
deak—, aurkezpenean  
erderaz ere egitea es-

katu zuen, bera erdal-  
dun bakarra zelako eta  
bere eskubideak «urra-  
tuak» zirelako.

## Aste Sainduan turismo etxeak bete-beteak

Bertze urte batez As-  
te Sainduko opor-egu-  
netan turisten bisita na-  
baria izan da gure in-  
guruan. Okupazioa ha-

gitz altua izan da, etxe  
ruralak %100 okupatu  
dira, eta turistek auka-  
rak emateko Anizko eta  
Zigako landetxeek bis-  
ta gidatuak antolatu zi-  
tuzten.

Alde batetik, lehena-  
goko bizimodua nola-  
koa zen erakuste alde-  
ra, mendialdeko herri tti-  
kietako historia, ohitu-  
ra, kultura eta bizitzeko

eraren berri eman zie-  
ten bisitariei. Gure he-  
rriek izandako garape-  
na ere azaldu zuten.

Bertzetik, Anizko  
Jauregian esnearen pro-  
zesua nolakoa den  
azaltzen zuten: esnea  
jeizten denetik jogurtak  
eta gasnak egin arteko  
prozesua. Akitzeko, Zi-  
gako Etxe Zurian baz-  
tan-zopak datastzeko  
aukera eskaintzen zu-  
ten igandean.

## Lurrikara tikiak somatu dira Baztanen

Martxoko azken as-  
telehenean, Baztanen  
eta inguruan lurrikarak  
sentitu ziren, eta hain-  
bat baztandar ere jabe-  
tu zen horretaz. 19:15ak  
aldera etxeko altzariak  
eta gauzak mugitzen zi-  
rela nabaritu zuten bizi-  
lagunek. Guztira zazpi  
mugimendu tiki izan zi-  
ren, 1 eta 3,1º bitarteko  
intensitatearekin. Ho-  
rietatik sei ordu erdian  
gertatu ziren, baina ez  
zuten kalterik eragin.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENTZIA

- Zurich Asegurua  
Autos, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza Itakala  
Enpresa Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria  
Baseri, bodega, pisu, etab... salmenta eta alkatua
- Gestoria  
Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren  
berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO  
Tfnua eta Faxa: 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

ttipi  
ttapa

www.ttipi.net  
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

Pierresenea

OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iburrizotz auzoa - Tfnua: 948 582 043  
ORONÓZ - MUGAURI



BADATOR UDABERRIA

badator

nafarroa berria

gorria



## KULTURA

# Antzerkia, dantza eta zine emanaldiak Udaberriko Biraren aitzakian

Aurten, apirilaren 21etik aitzinera, Zugarramurdi, Arantza, Donamaria, Narbarte eta Beintza-Labaienen

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak antolatuta, apirilaren 21ean ailegatuko da gure ingurura Udaberriko Bira, Han eta hemen, ekainaren 2a bitarte izanen da zer ikusi. Ekimen honen bitartez, 200 eta 1.000 biztanle arteko Nafarroako herrietan hainbat ikuskizun antolatzen dira urtero. Horien artean, Zugarramur-

di, Arantza, Donamaria, Narbarte eta Beintza-Labaien daude gure inguru herrien artean.

### Antzerkia, dantza eta zinea

Apirilaren 21ean **Zugarramurdi**n hasiko da gure eskualdeko bira. 17:30ean Malaspulgas taldeak *Cyrano* antzez-lana eskainiko du Ake-larrena Elkartearen. Ikuskizun bera izanen da ikusgai maiatzaren 19an, larunbata, **Donamaria**ko frontoian ere, 19:00etan.

**Arantza**n, maiatzaren 12an, Mikelats dantza taldea pilotalekuan izanen da 20:30etik aitzinera. Eta **Narbarten**, maiatzaren 20an, Zirko Ttipia taldeak *Girguai* ikuskizuna eskainiko du plazan, 17:00etan. Udaberriko birari akabera emanez, ekainaren 2an, **Beintza-Labaiengo** plazan *Iratxo*n erregea filma ikusgai izanen da, 21:00etan.

**Arantza**n, maiatzaren 12an, Mikelats dantza taldea pilotalekuan izanen da 20:30etik aitzinera. Eta **Narbarten**, maiatzaren 20an, Zirko Ttipia taldeak *Girguai* ikuskizuna eskainiko du plazan, 17:00etan. Udaberriko birari akabera emanez, ekainaren 2an, **Beintza-Labaiengo** plazan *Iratxo*n erregea filma ikusgai izanen da, 21:00etan.



## LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

### Nafarroako Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako Ikasleoen Gurasoen Elkarte eta Federazioen aldeko laguntzetarako 2007ko deialdia onesten duen Ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 33. zk., 2007/03/16* 59/2007 Ebazpena, urtarrilaren 26koa, *Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana.*  
<http://www.cfnavarra.es/bon/073/F0703835.htm>

### Establezimendu turistikoek kalitate turistikoaren «Q» ziurtagiria lortzeko laguntzen 2007ko deialdia onesten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 34. zk., 2007/03/18* 30/2007 Foru Agindua, otsailaren 16koa, *Vianako Printzea Erakundea, Kultura eta Turismo Kontseilariak emana.*  
<http://www.cfnavarra.es/bon/073/F0702946.htm>

### Lau seme-alaba edo gehiagoko familiarrentzako laguntzak emateko deialdia onesten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 38. zk., 2007/03/28* 36/2007 Foru Agindua, otsailaren 12koa, *Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak emana.*  
<http://www.cfnavarra.es/bon/073/F0702874.htm>

### Unibertsitate-tituludunak prestatzeko lau beka emateko deialdia egiten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 39. zk., 2007/02/30* 42/2007 Foru Agindua, otsailaren 16koa, *Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak emana.*  
<http://www.cfnavarra.es/bon/073/F0703500.htm>

### Komunikazio lizentziadun bat prestatzeko beka bat emateko deialdia egiten duen Foru Agindua, Gizarte On-

### gizatearen Zuzendaritza Nagusian aritzeko.

Non argitaratua: *NAO 39. zk., 2007/02/30* 64/2007 Foru Agindua, otsailaren 28koa, *Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak emana.*  
<http://www.cfnavarra.es/bon/073/F0704207.htm>


### Abenduaren 22ko 294/2006 Foru Agindua indargabetu eta irabazi asmorik gabeko entitateei Gizarte Integrazio-rako Etxebizitzen Programaren funtzionamendu gastuetarako dirulaguntzak emateko 2007ko deialdia nesten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 39. zk., 2007/03/30* 55/2007 Foru Agindua, otsailaren 21ekoa, *Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak emana.*  
<http://www.cfnavarra.es/bon/073/F0703508.htm>

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da. Kontsultatu [www.cederna.es](http://www.cederna.es) webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean



*Udaberria aurkitzeko, zure inguruan begiratu*



**Nafarroa**  
Lehen Auzoa

*Nafarroa, lau urtaro*



## KULTURA

# Xiba, Euskal jokoen IV. Topaketa Saran izanen da maiatzaren 12an

Finala Mendikotan jokatuko da ekainaren 30ean

## ttipi-ttapa

Dagoneko abian da Xiba izeneko euskal jolas, joko eta kirolen laugarren edizioa. Apirilaren 14an hasi zen Baigorri eta Nafarroa Beherea eta Zuberoako herritarren bilgune izan zen. Maiatzaren 12an Sarara ailegatuko da lekukoa, Herri Urratsen bezperan, eta Lapurdiko taldeak arituko dira bertan.

Urtetik urtera arrakasta haundiagoa hartzen ari den ekimena da Xiba, eta Euskal Herri osoko hainbat taldek parte hartzen du bertan, horien artean, gure inguruko taldeak. 16 urtetik goitiko 12 lagunek osatzen dute talde bakoitza (sei mutil eta sei neska) eta hauek dira jokoak: harri altxatzea,



ARTXIBOKOA

**Orain dela bi urteko edizioan, Zugarramurdiko taldeak Xiban parte hartu zuen Saran egindako kanporaketan.**

ingudea, lasto altxatzea, dantza, xiba, zama garraioa, koxkorak, txingak, zaku eramatea, toka, arpana, soka tira, birlak eta musa. Guztira 14 proba. Gipuzkoako kanpora-

keta apirilaren 28n eginen da Bergaran, Kilmetroak bestaren harira. Arabarrak Gasteizen elkartuko dira ekainaren 2an, nafarrak ekainaren 9an (herria ez dago zehaztua) eta biz-

kaitarrak maiatzaren 20an Balmasedan, Ibioldiaren barnean. Finala, berriz, ekainaren 30ean eginen da Mendikotan (Zuberoa), Euskal Herria Zuzenean jaialdian.

## URDAZUBI

## Pintura eta eskultura erakusketa berria Klaustroan

### ttipi-ttapa

Pintura-eskultura erakusketa zabalik dago dagoneko Monastegian. Apirilaren 6an ireki zituen atea eta maiatzaren 28a bitarte egonen da. «Udaberriko klaustroa» izenarekin bataiatu dute, eta bertzeak bertze, Monique Brot, Josette Dacosta, Jean Luc Labat eta Danielle Loisel en pinturak, eta Regina Engel, Claude Lallanne eta Renaud Vasas en eskulturak daude bertan. Jacques Pineuren obrak ere ikusgai daude. Erakusketa asteartetik ostiralera 12:30etik 19:00-etara dago irekia. Mendekoste astelehenean ere, maiatzak 28, zabalik egonen da.



## SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN



HERRIKO ETXERIKO EDONTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519

Maïken eta Véronique

SARA

# Rekordatorioak

egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta, 12 • ETXALAR • 948 635 458

BURKAITZEA

• ostatu  
• erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km

948 599 280 - URDAZUBI

ttipi  
ttapa

☎ (0034) 948 635458



**SARA**

## Inoiz baino autore gehiagok parte hartu du XXIV. Idazleen Biltzarrean

152 idazle bildu ziren Bazko astelehenean, iaz baino 32 gehiago

**ttipi-ttapa**

Bazko astelehenarekin Euskal Herriko literaturaren bilgune bihurtzen da urtero herriko kiroldegia, eta aurten ere halaxe izan zen. Sarako Idazleen Biltzarren 24. aldia zen eta inoiz baino idazle gehiagok parte hartu zuen, guztira 152k. Tartean aurpegi ezagun andana ere ikusi zitekeen, idazleak izan ala ez. Joan den urtean, berriz, 120 idazle bildu ziren.

Sarako Turismo bulegoak urtero antolatzen du ekimen hau, eta hainbat alorretako liburuak paratzen ditu bisitarien

eskura: historia, poesia, eleberrak, bidaiak... Edizio honetan, dokumental bat ere eskaini zuten kirol: «Euskal Munduak» izenekoa.

Gisa berean, aipatzekoa da, zenbait idazlek antolatzaileekin aitzinetik hitzartua zutela liburua lehen aldiz Saran aurkeztea. Eta halaxe izan zen. Aurpegi ezagunen artean Bernardo Atxagarena nabarmendu zen. «*Markak Gernika 1937*» bere azken liburua aurkeztu zuen Saran lehenbizikoz, Gernikako bonbardeketaren inguruan idatzitakoa.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Martxoaren 28an kontzertua eskaini zuten Berako Musika Eskolako ikasleek Lur Berrin. Lehenago, berriz, karrikan barna ibili ziren herria animatzen.

**1951tik Iantzerla-etxean**  
**Casa Cambra**  
 Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak • mantelak  
 edredoi nordikoak • kuxinak  
 ohe estalkiak • maindireak  
 toailak • edredoi-azal nordikoak

*udaberriko eskaintza berria*

## SENPERE

# Bortzgarren triatloia aintziraren inguruan eginen da apirilaren 28 eta 29an

Kontseiluak 70 Bai Euskarari label banatu ditu

## Franck DOLOSOR

Gan den urtean ez zen triatloiarik egin aintzira hutsa baitzen eraberritze lanengatik. Aurten, aldiz, dena prest da kirolaren besta haundia egiteko. Hitzordua 28 eta 29an izanen da. Aintzira toki paregabea da norgehiagoka hori egiteko mendiak, ura eta bidexkak baitaude inguruan.

Triatloian taldeka parte hartuko dute kirolariek, eta 300 metro igeritan, 14 kilometro eta erdi bizikletaz eta 3 lasterka egin beharko dituzte.

Gisa berean, 8 eta 12 urte arteko eta 10 eta 14 urte arteko haurrentzat bertze frogak burragoak eginen dira ere. Xehetasunak:



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

**Korrika beti bezain alai izan da aurten ere. Karantzua eta Iruña arteko lasterkaldia herritik pasazen martxoaren 31an eta senpertar andanak parte hartu zuen.**

[www.triathloncotebasque.fr](http://www.triathloncotebasque.fr)

## Zikiro jatea

Bi zikiro-jate eginen dira ondoko egunetan Senperen. Amotzeko eskola publikoko gurasoek xerri tiki jatea pro-

posatuko dute apirilaren 28rako. Bertzalde, Aintzirako besten karrera, pittika jatea eginen da maiatzaren 26an.

## Bai euskarari

Kontseiluak 70 bat label banatu ditu berriki



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

## Urrezko eta diamantezko ezteiak

Berriki Berrouet eta Haroçarene familiak ospakizun ederrak izan dituzte. Urrezko eta diamantezko ezteiak ospatu dituzte familia horietako buruek. Zorionak eta ainitz urtez.

Senpereko saltegi, enpresa eta elkarteetan. Keinu tiki honekin usaiak aldatzeko urrats bat egin nahi da, euskararen alde. Lapurdin 200 label banatu dira eta

horietatik 70 herrian. Label banaketa egunean, andere auzapeza pozik agertu zen elkarteek eta enpresek ere Herriko Etxearen bide bera segitzen dutelako.

# ttipi-txartela 2007



urtean  
40€

39 komertzioetan  
deskontuak



aldizkaria doan



deitu eta egin zurea!! 948 635 458



## OSPAKIZUNAK

# Nafarroaren Eguna apirilaren 29an Baigorriin

Aitzineko asteetan jardueraz betetako kulturaldia antolatu dute Baigorriko gaiteroek eta Basaizea kultur batasunak



### ttipi-ttapa

Urtero bezala, apirileko azken egunean egingen da Baigorriin Nafarroaren Eguna, apirilaren 29an. Aspaldiko urteetan egin den bezala, egun horren harira kulturaldia antolatu dute Baigorriko Gaiteroek eta Basaizea kultur batasunak eta dagoeneko horretan murgilduak daude. Ekitaldiak apirilaren 13an hasi ziren, eta bertzeak bertze, bertso afaria Bidarrain, Baxe-Nafarroako presoengaualdia Baigorriin eta Haurren eguna izan ziren, Baigorriin hau ere.

Hala ere, egun handia ailegatu bitartean, izanen da bertzelako aukerarik ere. Apirilaren 20an, Baigorriin eztabaida egingen da «Euskal Kultura atzo, egun eta bihar» gaiaren inguruan. Parte hartzeko gonbidapena dutenak Zabaliak, Topagunea, Haize Berri, Euskal Kultur Erakundea, Garzikus, Baztandarren Biltzarra, Biltxoko, Euskal Herria Zuzenean eta Kalandude dira.

Larunbat honetan, hilak 21, Urepelen kantu afaria egingen da Laffitte ostatuan. Txartelak

salgai daude Urepelgo Laffiteanean edo Baigorriin Bixentainean. Igan-dean, berriz, «Baionan bizi» antzerkia izanen da Baigorriko Biletxean. Apirilaren 28an, berriz, Alduden Nafartarren afaria egingen da.

### Nafarroaren Eguna

Egun handia apirilaren 29an ailegatuko da: Nafarroaren Eguna, aurten 29. edizioa. Goizgoizetik hasita ekitaldi ugari izanen dira Baigorriin. 11:00etatik aitzinera hainbat talde ibiliko dira herrian barna:

dianak, gaiteroak, txistulariak, joaldunak, ziganteak, makilariak, garzarrak, Gabadiko Iru-siki, Burgaintzi eta Arro-la datnza taldea, Ezpela, Uztaritze eta Burgaintziko txarangak... 12:00etan, Igor Elorza eta Unai Iturriagak bertso saioa eskainiko dute elizan. Beranduago, 13:00-13:30ak aldera presoen manifestazioa egingen da, eta 14:00etan ikastolen bazkaria herriko plazan.

Arratsaldeko ekitaldiak bi gunetan banatu dituzte. Alde batetik, herriko plazan, 16:00etan

herri-kiorak izanen dira, eta ondotik Lizarra, Kortés eta Otsagabia-ko dantzariak. 19:00ak aldera dantza jauziak eta Larrain dantza Ezpela txarangarekin.

Bertze gunean, xokoan, 17:00etan kulturaldia egingen da Kuxkutu txarangarekin. 19:00etan Tapia ta Leturiaren txanda izanen da, eta 22:00etan Kiki Bordatxo.

Bertzalde, egun guztian Erlauz'Band eta Mukaki txaranga kaleak alaitzen ibiliko dira, baita Perfusion taldea eta trikitilariak ere.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



## EZKONTZAK

**Michael Emeka Amechi** eta **Ana Maria Etxeberri Etxeberria**, Beran, martxoaren 17an.  
**Felipe Artola Aginaga** eta **Lucia Soroa Alzibar**, Beran, martxoaren 24an.




## SORTZEAK

**Mikel Telletxea Sarratea**, Gaztelukoa, martxoaren 26an.  
**Unax Castillo Franco**, Berakoa, martxoaren 18an.  
**Erlaitz Lasaga Martikorena**, Berakoa, martxoaren 10ean.  
**Ane Etxegarai Fagoaga**, Berakoa, apirilaren 5ean.  
**Oihan Orbegozo Garrido**, Doneztebekoa, martxoaren 13an.  
**Maria Apezetxea Apezetxea**, Goizuetakoa, apirilaren.  
**Kaiet Andueza Gorostiza**, Arantzakoa, otsailaren 6an.  
**Aitor Igoa Arretxea**, Sunbillakoa, martxoaren 24an.  
**Iker Irigoien Ubiria**, Lesakakoa, martxoaren 16an,  
**Iker Robledo Paccini**, Lesakakoa, martxoaren 30ean.



## HERIOTZAK

**Maria Iriarte Arretxea**, Sunbillakoa, martxoaren 24an, 88 urte.  
**Jose de Blas Tejada**, Elizondon, martxoaren 24ean, 71 urte.  
**Bautista Dagerre Martinez**, Berakoa, martxoaren 24an, 79 urte.  
**Aitor Escagües Dozagarat**, Berakoa, martxoaren 25ean, 13 urte.  
**Joxean Lopez Gutierrez**, Lesakakoa, martxoaren 30ean, 58 urte.  
**Anunciacion Alonso Gallego**, Elizondon, martxoaren 30ean, 65 urte.  
**Sor Maria Jesus Andia Etxarre**, Elizondon, martxoaren 31n, 81 urte.  
**Jesus Sansiñena Alberro**, Aurtizkoa, apirilaren 1ean, 64 urte.  
**Juan Lorenzo Lasarte Larrea**, Leitzakoa, apirilaren 1ean, 93 urte.  
**Angel Maria Arbizu Otermin**, Aresokoa, apirilaren 1ean, 49 urte.  
**Antonia Muru Etxegoien**, Elizondon, apirilaren 1ean, 91 urte.  
**Maria Inda seminario**, Elizondon, apirilaren 2an, 94 urte.  
**Esteban Osagarre Arrizubieta**, Leitzakoa, apirilaren 3an, 78 urte.  
**Maria Lasarte Noain**, Ezkurrakoa, apirilaren 7an, 96 urte.  
**Justina Azpiroz Jaunarena**, Doneztebekoa, apirilaren 7an, 84 urte.  
**Josefa Aranburu Lasaga**, Doneztebekoa, apirilaren 7an, 98 urte.  
**Maria Cruz Larregi Karrikaburu**, Mugairikoa, apirilaren 8an, 92 urte.  
**Lontxo Lasarte Otermin**, Leitzakoa, apirilaren 7an, 85 urte.  
**Mario Mitxelena Jorajuria**, Sunbillakoa, apirilaren 10ean, 85 urte.  
**Prudencia Petrikorena Migelena**, Igantzikoa, apirilaren 10ean, 90 urte.  
**Bautista Elizondo Uztariz**, Arizkungoa, apirilaren 11n, 83 urte.



### Aitor ESCAGÜES DOZAGARAT

Beran, 2007ko martxoaren 25ean

Aitor non barna zaude  
 bila gabiltza, ai!  
 Gogoratzen zaitugu  
 irrifartsu alai.  
 Ama, atta, Jabier,  
 zuekin gaude bai.  
 Aintzina segitzeko  
 izanen gara gai.  
 Maite zaitugu aunitz  
 egon zaitez lasai.

**Toki Ona** Institutua eta **Ricardo Baroja** Eskolako ikasle,  
 guraso, irakasle eta langileak.



### Aitor ESCAGÜES DOZAGARAT

Beran, 2007ko martxoaren 25ean

Mutiko alai eta  
 lagunena laguna  
 hemen utzi diguzu  
 zure maitasuna  
 asko maite zenitun  
 Gure ta Osasuna  
 aio eta gero arte  
 Aitortxo kuttuna

**Barredo Telletxea** familia.



## MENDIA

# Berako III. Mendi Maratoi Erdia apirilaren 29an egingen da


Aurtengo edizioak Luis Mari Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi omenduko ditu

## Gurutze PIKABEA

Berako III. Mendi Maratoi Erdia apirilaren 29an egingen da, Manttale Mendi Lasterketa taldeak antolatuta, eta 400 parte hartzaile espero dira. Dagoeneko ehun bat lagunek izena emana dute. Aitzinekoek bezala, hirugarrenaldi honek ere 21 kilometro izanen ditu, baina berteetan izan ez duen ikutu berezia ematen saiatuko dira antolatzaileak. Lasterketa honen sortzaile izan ziren Luis Mari Pikabea «Loro» eta Xabier Zubieta «Zubi» eta Xabier Saralegi lehenengo edizioan parte hartu zue-na omenduko dituzte.

Ibilaldiak 21 kilometro izanen ditu eta 9:45ean abiatuko da Berako kiroldegitik. Denbora eta pasalekuak ere zehaztu dituzte, baita erretiratzeko puntuak ere. Antolatzaileen arabera, lasterketa honen helburua bertze batzuetarako prestatzea da: Euskal Herriko Mendi Lasterketa eta Euskal Herriko VI. Kopa, hain zuzen.

Dagoeneko izena emana duten ehun horien artean egonen diren horietako batzuen izenak ere jakinarazi dituzte antolatzaileek [www.manttale.com](http://www.manttale.com) webgunean, izen ezagunak tartean: Juan Mari Garin beteranoa –estreinakoz–, Fernando Etxegarai –lehenengo



ARGAZKIA: WWW.MANTTALE.COM

edizioko irabazlea–, Imanol Etxeberria –iazko Zegama-Aizkorri Maratoian lehen euskal sailkatua– eta Unai Berazabal–txirindulari ohia–. Asiera Urdanpilleta, Arkaitz Zamakona eta Unai Santamaria ere bertan izanen dira.

Lasterketa ikusi ahal izateko, mendi martxa ere antolatu dute. Kiroldegitik abiatuko da 9:00ak aldera, eta 9. kilometroan lasterkariak pasatzen ikusi eta berri-rriz herrira itzultzeko.


## IZEN-EMATEA

Partaide kopurua 400ean ezarri dute antolatzaileek, eta oraindik badago aukera. Izen-ematea Internet bidez egin behar da: web orrialdean sartu eta hor eskatzen den inprimakia bete eta 18 euro sartuz aipatzen den kontuan. Izena eman eta diru-sarrera egina dagoenean, izen-zerrenda zabalduko da. Dortsalak, berriz, maratoiaren bezperan banatuko dira, apirilaren 28an, Gutre Txokoa Elkartearen, 16:30etik 18:30era. Gi-

sa berean, aipatu, egun berean, 19:00etan Kultur Etxean lasterketaren aurkezpena egingen dela ibilbidearen nondik norakoak azaltzeko.

Lasterketaren ondotik, 13:30etik aitzinera omenaldia eskainiko zaie Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegiri. Ondotik sari banaketa eta luntxa egingen dira.

Harremanetarako telefonoak ere paratu dituzte: 606 381904 (Rafa Pombar), 609 981147 (Patxi Pikabea), 657 725883 (Bautista Tellexea) eta 670471200 (Txomin Irazoki).



## Maiatzaren 6an Berako VIII. Mendi Itzulia

### G. PIKABEA

Berako Agerra Mendi Taldearen, Udalaren eta Nafarroako kirol eta Gaztediaren Institutuaren laguntzarekin, maiatzaren 6an egingen da zortzigarrenez Berako Mendi Itzulia. 30 kilometro izanen ditu ibilbideak, aitzineko aldiko ibilbidea egingen du.

Agerra elkartetik hasita Larretagaina edo Santa Barbara izanen da lehenbiziko tontorra (400 metro). Handik Idoiako bidegurutzera jaitsi eta Labiagara (618 metro) igoko da. Lizuniaga, Kondendiaga, Larun (900 metro), lasola Zaharra,

Landagaita, Usategieta, Ibardin, Azkenbaita, Mandale (573 metro) Postanbarna, berriz ere Agerrara itzuliko da. Ibilaldian parte hartzeko 6 euro ordaindu beharko dira, eta izen ematea Agerra Mendi Taldearen

egoitzan egingen da 6:00etatik 7:50ak bitartean. Ibilaldiaren irteera

7:00etatik 8:00etara izanen da, eta parte hartzaile bakoitzari dagokion txartela irteerako kontrol-postuan emanen zaio, hurrengo kontrol postuetan erakusteko.



## PILOTA

# Abian da Baztan-Errekako Laxoa Txapelketaren 28. edizioa

12 talde ari dira parte hartzen eta abuztuaren 5ean jokatuko da finala

## Gurutze PIKABEA

Laxoa elkarteak antolatutako 28. Baztan-errekako laxoa txapelketa hasia da dagoeneko. Martxoaren 31n hastekoa zen, baina eguraldi txarra zela-eta gibeleratu egin zuten. Aurten 12 talde arituko dira, iaz baino bat gehiago. Doneztebek lau talde aurkeztu ditu, Irurita hiru, Oitzek bi, Arraiozek bertze bi eta bakarra Hondarribiak.

Hasierako fasean bi multzotan banatuak arituko dira, sei batean eta sei bertzean. A multzotan daudenak Doneztebe C, Doneztebe A, Irurita C, Oitz A, Oitz B eta Irurita A dira. B multzotan, Hondarribia, Irurita B, Arraioz B, Donezte-



ARTXIBOKOA

lako finala Oitzen jokatu zen eta Doneztebek jantzi zuen txapela hamaisgarren aldiz. Aurtengo finala, berriz, Iruritako plazan jokatuko da.

be D, Doneztebe B eta Arraioz A. Multzo bakoitzeko lehen lauak final laurdenetara sailka-

tuko dira eta partidu horiek ekainaren 24an, uztailaren 1ean eta 8an jokatuko dira; Finalaurre-

koak, berriz, uztailaren 15, 22 eta 29an. Finala abuztuz 5ean izanenda, Iruritako plazan.

## FLASH

## Sarako II. Korrika Trail Lasterketan Fernando Etxegarai irabazle

Mantale Mendi Taldeak ezin hobeki hasi du denboraldia. Martxoaren 25ean egin zen Saran II. Korrika mendi lasterketan, 35 kilometroko ibilbidea osatzen bizkorrena Fernando Etxegarai izan zen. Aitzineko urtean ere txapela eraman zuen eta aurtengoa iaz egindako marka hobetu; 2006an 2 ordu, 3 minutu eta 25 segundu behar izan zituen akitzeko; oraingoan, 2 ordu eta 42 segundu. Podiumeko koska guztiak eskualdeko kirolarientzat izan ziren. Rafa Maritxalar lesakarra eta Patxi Irazoki igantziarra gelditu baitziren bigarren eta hirugarren. Maritxalar irabazlearengandik ia bi minutura gelditu zen. Irazoki, berriz, hirugarren, eta iaz baino bost minutu guttiago behar izan zituen laiko akitzeko.

## PILOTA

# Zozaia eta Ibargarai Espainiako klubaren arteko txapelketa pala motzean

40-20 irabazi zioten Aragoiko bikoteari

## G.P.

Xabier Zozaia lesakarra eta Xabier Ibargarai erratzuarrak pala motzeko Espainiako klubaren arteko txapelketa irabazi dute. Oberena klubaren izenean aritu ziren eta ez zuten txapela eskuratzeko arazo

haundirik izan. 40-20 garaitu zituzten Mercado eta Idoipe Aragoiko bikotea.

Lesakarrak eta erratzuarrak erraz garaitu zituzten aurkariak. Finalerdietan ere arazo haundirik gabe irabazi zieten Barakaldoko Zu-

laika eta Leundari. 21 tantorekin utzi zituzten bizkaitarrak.

Zozaia eta Ibargarai Nafarroako txapelketa atera ziren eta garaipen horri esker izan dute Espainiako klubaren arteko txapelketa parte hartzeko aukera.



ARTXIBOKOA

Ibargarai eta Zozaia Nafarroako txapelketa atera zirenean.



## ARETO FUTBOLA

## FLASH

# Baztan-Bidasoako XIV. txapelketan 16 talde jokatzeko ari dira

Zortzi talde ari dira A multzoan eta bertze zortzi B multzoan

## Gurutze PIKABEA

Martxoaren 25ean abiatu zen Baztan-Bidasoako hamalagarren futbito txapelketa. Aurtengoan finantzazio eta kiroldegi arazoak tarteko, ohiko data baino beranduago hasi zen. 16 talde ari dira parte hartzen, bi multzotan banatuak: 8 A multzoan eta bertze 8 talde Bn. Aipatu, Sunbilla jokatu direla partida guztiak. Iaz lehenbizikoz bi kategoriatan banatu ziren, baina aurten maila bakarrean arituko dira.

A multzoan ondoko taldeak ari dira: Ekaitza Arantza, Arraioz, Ekai-



ARTXIBOKOA

**Lesakako Haizegoa Ostaturia taldeak irabazi zuen joan den urteko txapelketa. Aurten, ordea, ez da ez da parte hartzen ari.**

tza Ostaturia (Doneztebe), Xanpale (Legasa), Zubi Punta (Erratzu), Bar Saioa (Irurita), Lur Lan Eskabazioak Baietz (Bera) eta Kortarixar sa-

gardotegia (Elizondo).

B multzoan, berriz, Patxaran Ordoki (Amaiur), Zubieta, Goizalde Ostaturia (Elizondo), Aise Taldea (Elizo-

dondo), Sasoi Eskabazioak (Sunbilla) Bar Titi (Doneztebe), Lur Diskoteka eta Narbarte.

Joan den urteko txapelketa, Lesakako Haizegoa Ostaturia ez da jokatzeko ari aurten, baina bakoitzeko lehen lauak pasatuko dira final laurdenetara. Dena ongi joanez gero, finala maiatzaren 20an izanen da. Taldekako sailkapenez gain, banakako sariak ere banatuko dira.

Hasierako ligan zazpi jardunaldi jokatu dira multzo bakoitzean, eta akitutakoan, multzo bakoitzeko lehen lauak pasatuko dira final laurdenetara. Dena ongi joanez gero, finala maiatzaren 20an izanen da. Taldekako sailkapenez gain, banakako sariak ere banatuko dira.

## Txarutak irabazi du Belateko klubaren arteko txapelketa

Martxoaren 31n Belateko Klubaren arteko txapelketako finalak jokatu ziren Bera eta Lesakako pilotalekuan, eta Txaruta pilota elkarteak txapelketa irabazi zuen aurten ere. 19 klubek parte hartu zuten txapelketan, tartean gure eskualdekoak. Horieta finaleraino aritu zirenak hauek izan ziren: Gure Txokoa (Bera), Biltoki (Igantzi), Arkupe (Lesaka), Txaruta (Baztan) eta Umore Ona (Goizueta). Honela gelditu ziren emaitzak:

**Aurrebenjaminak 2. maila:** Sanzberro eta Elzaudia (Gure Txokoa), 9; Ikaya eta Irarizoki (Txaruta), 18.

**Aurrebenjaminak 1. maila:** Gaskue eta Iribarren (Kulpittu-Ultzama), 10; Apezetxea eta Salaberria (Umore Ona), 18.

**Benjaminak 2. maila:** Canabal eta Matxikote (Biltoki), 18; Fernandez eta Medina (Donibane), 15.

**Benjaminak 1. maila:** Laso eta Bakaikoa (Donibane), 18; Anso eta Espelosin (Txaruta), 9.

**Alebinak 2. maila:** Mindegia eta Arretxea (Txaruta), 18; Sanjurjo eta Olaizola (Arkupe), 11.

**Alebinak 1. maila:** Errandonea eta Mitxelena (Gure Txokoa), 11; Elizalde eta Untxalo (Txaruta), 18.

**Infantilak 1. maila:** Zelaia eta Igartua (Biaizpe), 16; Arotzena eta Etxeberria (Umore Ona), 18.

**Kadeteak 1. maila:** Oronoz eta Kanpo (Txaruta B), 18; Juanena eta Juanena (Txaruta C), 9.

## HERRI KIROLAK

# Basaburuko kimuek txapela lortu zuten Nafarroako Kirol Jolasetan

Igantzi eta Basaburuko bertze taldeek ere lan txukuna egin zuten

## G. URDANPILLETA

Nafarroako Kirol Jolasen txapelketari adio erran diote gaztetxoek. Martxoaren 25ean jokatu zen bosgarren eta azken jardunaldia Berriozarren eta han izan ziren Basaburua eta Igantzi taldeak. Emozio handiko saioak ikusi ziren, txapela lortzeko lehia estua, baina azkenean bakarrik etorri

zen eskualdera, Basaburura.

Kimuen mailako proba konbinatuekin hasi zen Berriozarreko saioa. Saio orekatua izan zen, baina azkenean, Basaburua izan zen irabazle. Igantzi, berriz, hirugarren gelditu zen.

Haur mailako proba konbinatuan, Sakanak eraman zuen txapela, eta Igantzi eta Basabu-

ria hirugarren eta laugarren gelditu ziren.

Kadeteen mailako finalak jokatu ziren segidan. Eskualdeko ordezkariak dagokionez, Basaburua bakarrik aritu zen eta hirugarren gelditu zen. Andra Mari jantzi zuen txapela.

Proba konbinatuen ondotik, sokatiran aritu ziren gaztetxoak, haur eta kadete mailakoak.

Haur mailan, ongi aritu ziren Basaburua eta Igantzi taldeak, baina Txantrea atera zen garaile, eta Basaburua eta Igantzi bigarren eta hirugarren izan ziren.

Kadeteetan ere, emozio handiko saioa izan zen Txantrea eta Basaburuaren artekoa. Azkenean, guttiatik, baina Txantrea gelditu zen aitzinean.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### IKASTAROAK

#### LEITZA

**Apirilaren 16tik 27ra**, Oinarrizko windows, Internet eta elektronika ikastaroa. 16:00-18:00 (hirugarren adinekoentzat), 18:00-20:00 (emakumeentzat). Izen-ematea 948- 567010 telefonoan (8:00-15:00).

#### ELIZONDO

**Apirilean**, pintura lantegiak eginen dira Arizkunenean. 18:00etatik 21:00etara. **Apirilean**, «Nafarroa eta zinea» ikastaroak Arizkunenean. 18:00etatik 21:00etara.

#### ETXALAR

**Apirilaren 18tik ekainaren 27 arte**, marrazketa ikastaroa. Asteazkenetan 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea 620 719400 telefonoan (Mathilde).

### ERAKUSKETAK

#### AMAIUR

**Apirilaren 19an, 20an, 26an eta 27an** Juan Gorritiren «Gure Basoak» erakusketa Serorategian. (10:00-13:00/16:00-19:00).

### KANTU AFARIA

#### UREPELE

**Apirilaren 21ean** kantu afaria Laffite ostatuan. Txartelak salgai Laffittenean (Urepele) eta Bixentinean (Baigorri).

### ANTZERKIA

#### BAIGORRI

**Apirilaren 22an** «Baionan bizi» antzezlan, 17:00etan Biletxean.

### BERTSOLARIAK

#### LESAKA

**Apirilaren 28an** bertso saioa zahar etxean, 17:30ean.

## TELEBISTAKO TXOKOA



## APIRILAREN 24KO KONTU KONTARIN Santiago Irigoien txistulari lesakarrarekin solasean

Aski ezaguna da musika munduan Santiago Irigoien 93 urteko lesakarra, ttipi-ttipiaren bere txistua lagun harat eta honat ibili baita. Zazpi urte bertzerik ez zituenean, 1920an, Lesakako Musika Akademian sartu zen, eta sei urte beranduago eman zuen jendearen aitzinean bere lehen kontzertua. Geroztik hainbat plaza eta herri bisitatu ditu. Baina ez da txistua bere musika tresna bakarra izan. Herriko Musika bandan egin dituen urteetan tronpeta eta tronboia ere jo baititu. Eta ez jo bakarrik, musika piezak ere konposatu ditu: polkak, fandangoak, arinarinak, txistuarekin zein bertze hai-

zeko musika tresnekin jotzeko. Horien artean, ezagunena, «Hiri» izeneko biribilketa. Berarekin egoteko aukera izan du Goizalde Urdanpilleta Ttipi-Ttapa Telebistako gure lankideak eta hori eskainiko digute apirilaren 24ko Kontu Kontari saioan.

**APIRILAREN 27AN, AIZKOLEGIN** Hagitz bertzelako gaia landuko dute hilaren 27ko erreportaian. Alejo Martikorena Nafarroako Gobernuko Ingurumen Saileko mendizainarekin Aizkolegira joanen dira, eta bertako espezie, landare eta bertzelako kontuen berri ematen digute.

## DISKAK



Eutsi!

EUTSI!

OIHUKA, 2007

Eutsi! filmak gaur egungo historia bat kontatzen digu eta bi langileren adiskidantza du oinarri. Lan egiten duten enpresarekin liskarretan dabilta. Bingen Mendizabalaren soinu bandako musikaren parte bat konposatu du. Soinu bandarako espresuki bertze hiru abesti egin dituzte Gose eta Potemkin taldeek, eta horiei 80ko hamarkadan sortutako bertze 12 kantu gehitu zaizkie izen bereko diskoa osatzeko. Eutsi! bildumak kontzeptu bat lantzen du: zutik irauteko garaiak berreskuratu 80ko hamarkadako abestiak kantatuz. Gose, Potemkin, Hertzainak, Itoiz, Kortatu, Delirium Tremens, Ruper Ordorika, Zarama, Baldin Bada, Mikel Laboa, Jotakie, Barricada, Potato eta La Polla Recordsen kantuak dira, denon memoria historikoan di-ruatzen taldeenak.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Martxoaren 23tik martxoaren 30era bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 37,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,055 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,450 € Kg/bizirik. (=)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,92 (=)  
**1.koa** 3,64 (=)  
**2.koa** 3,44 (=)  
**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,04 (=)  
**1.koa** 3,76 (=)  
**2.koa** 3,53 (=)

**Oharra:** Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Aretze mestizoak:**  
urruxak 190,00 (=)  
idixkoak 288,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 150,00 (=)  
idixkoak 180,00 (=)  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,98/3,08  
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,30/5,90  
8-10 kilokoak: 4,10 /4,80




## JAKIN BEHARREKOAK

# Nafarren %94 farmazietan jasotako arretarekin gustura dagoela dio Irachek

Farmazien Lege berriarekin farmazia gehiago ireki dira Nafarroan

Nafarroako Gobernua 2000. urtean farmazietako tratua eta arreta arautu zuen, 12/2000 Foru Legearen bitartez. Zazpi urteren ondotik, farmazia gehiago ireki dira Nafarroa osoan, bai Iruñean eta bai gainerako herrietan ere. Legearen harira, Irache Kontsumitzaileen Elkarteak 18 urtez goitiko 400 nafar inkestatu zituen otsail bukaera eta martxoaren hasieran. Ondorioa: herritarren %60ren zatik lege berriarekin zerbitzua hobetu egin da. Gainera, kopuru horrek goiti egiten du 5.000 biztanletik behetik herrietan. Gisa berean, aipatzekoa da, lege berriarekin ireki ziren farmazia gehienak batez ere herri tikietan egin zirela.

Bertzalde, batez ere, 30 eta 65 urte bi-



2000an indarrean sartu zen farmaziaren legearekin gustura daude Nafarroan, Irache Kontsumitzaileen Elkartearen arabera.

tarteko jendea da lege berria onuragarria izan dela iritzia diona, %67-70 inguruko portzentaiarekin.

Iracheren arabera, kexa gutti jasotzen duen alorra da. Farmazietako arretak, eta emandako datuek ere hala erakusten dute: %94 gustura dago farmazietan jasotzen duen arretarekin. %4k

uste du tratua hala moduzkoa dela.

Herritarrak gustura egonagatik ere, oraindik hobetu beharreko alorrak ikusten ditu Irachek. Kontsumitzaileen Elkarteak jasotzen dituen kekurik gehienak ordutegiaren, antolamenduaren eta guardian dauden farmazien inguruan izaten

omen dira. Guardian egonda, errezetarik gabe botikarik jaso ez dutela kezkatzen omen dira batzuk.

Inkestako datuek aipatutakoa berresten dutela diote Irachen. Izan ere, herritarren %46k guardian dauden farmazia gehiago eskatzen dute, eta %17ren iritziz, guardian egon ala ez, produktu berdinak saldu beharko lituzkete. Hori da, adibidez, analgesiko edo txupeteen kasua.

Irachek nabarmendu duenez, %7k farmazia gehiago eskatzen du eta %13k tratu edo arreta hobea. Farmazietan produktu gehiago eskatzen duenik ere bada, %13k hori nahi baitu. Hala ere, deus aldatu gabe arretarekin gustura dagoen jendea ere bada, %38 Iracheren arabera.

## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

#### SUNBILLA

**Apirilaren 27an** Anetora mendi ateraldia, Ulibeltzak mendi taldeak antolatua.

#### BAZTAN

**Apirilaren 22an** Santa Barbarara ateraldia antolatua du Baztango Mendigoizaleak.  
**Apirilaren 29an** Nafarroaren Egunean ateraldia antolatua du Baztango Mendigoizaleak.

### KONTZERTUAK

#### AZKAINA

**Apirilaren 22an** Imuntzo eta Beloki, 15:30ean, Trikitixa Egunaren harira.

#### ELIZONDO

**Apirilaren 21ean** Baztango taldeen kontzertua Ufestuek, Eko4, Kaskezur... Lur dantzalekuan 20:00etatik aitzinera.

#### ZUBIETA

**Apirilaren 21ean** Boogie Van taldearen kontzertua, 23:00etan.

### ANTZERKIA

#### LESAKA

**Apirilaren 27an** «Keinu-leihoak 07» barne «Arnasa» antzerkia 22:00etan, Kasinon.

**Apirilaren 28an** «Keinu-leihoak 07» barne «Arnasa» antzerkia 22:00etan, Plaza Zaharrea.

**Apirilaren 29an** «Keinu-leihoak 07» barne «Arnasa» antzerkia 22:00etan, Atxaspin.

### OSPAKIZUNAK

#### BAIGORRI

**Apirilaren 29an** Nafarroaren Eguna egun osoan (xehetasunak 45. orrialdean)

## LIBURUAK



Beste Eguzkia

Itziar MADINA

TXALAPARTA, 2007

Asunenbordako Domingo artzain bakartiak etxaldea utzi eta gazte denborako amodioarekin, Josefinarekin, bat egiteko asmoa dauka bere bizitzaren gainbeheran. Baina egitasmo horren bidean, bere jaioterria, Alkabehera, okupatu duen gazte taldea agertuko da. Zer izan dezakete komunean artzain zahar batek eta okupa lotsagabe batzuk? Guztiz kontrajarriak diruditen jarrekek bat egin al dezakete? Nola? Balizko batasun hori

egia bihurtuko da, bikote zaharrak eta okupa gazteek Urruti-Etxarte-Uhalde eraikuntza enpresaren eraso higiezinari aitzin egin behar diotenean. Baina zaila da gazte zein zaharrentzat bide egiten ari duen gizarte modernoari aitzin egitea. Denbora akitzen ari zaie guztiei. Beharbada, pertsonak zein bizimoduek, aurki egonen dira denak bertze eguzkiaren argitan. «Milaka xinaurrik ziztatzan balute bezala sendi da Domingo (...)».

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

2007/04/19 • 444. zbk.

## ADOS

**ELIZONDO.**  
- 2. eskuko pisuak salgai.  
- VPO pisuak salgai.  
**ERRATZU.**  
- Apartamentua salgai.  
**ARRAIOZ.**  
- Pisua salgai.  
**BERA.**  
- 2. eskuko pisuak salgai.  
- Etxea salgai.  
**LESAKA.**  
- 2. eskuko pisuak salgai.  
**ETXALAR.**  
- Baserria salgai.  
**DONEZTEBE.**  
- Apartamentua trastero eta apartakalekuarekin salgai.  
AUKERA ONA!!  
- Promozio berriko pisuak salgai.  
- Inguruan etxeak, baserriak eta bordak salgai.  
**BAZTAN-BIDASOA.**  
- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.  
**PROMOZIO BERRIAK:**  
**IGANTZI.** Azaken pisua eta duplexa salgai.

INFORMA ZAITEZ!  
948 451 841 / 948580705  
www.ados-inmobiliaria.com

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**ETXALAR.** Baserria bere lur-rekin salgai. ☎ 948 635122 (20:00etatik 22:00etara).

**NARBARTE.** Pisua salgai Bertizko Jaurerriaren ondoren, guztiz mobleztatua, 108 m<sup>2</sup>, 3 logela, egongela, sukaldia, komuna, 2 trasteleku, despentsa eta bal-koia. ☎630 885429.

**IRUÑA.** Pisua salgai Tafalla kalean, 90 m<sup>2</sup>. Prezio negoziagarria. ☎669 732078.

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

**ELIZONDO.** Etxea edo pisua errentan hartu nahi da Elizondon edo inguruan. ☎ 647 050496 / 662 251848.

## ANZABAL INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.**  
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.  
**IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.**  
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.  
**ZUGARRAMURDI.**  
- Baserria salgai 50.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurrearekin salgai.  
Tel. 948 580 804 / Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 109 Errentan eman

**BERA.** Garaje-plaza errentan emateko. Euskaldunajate txeparean, Dorrea bloke-tan. ☎ 948 585 059.

### LURRAK/ORUBEAK

#### 116 Bertzelakoak

**BORTZIRIAK.** Kiwiak us-tiatzen utziko nitzuke, lurak garbitzearen truke. ☎629 324681.

### ZERBITZUAK

#### 208 Bertzelakoak

**BORDA  
PLADUR LANAK**

ISOLAMENDUAK  
DEKORAZIOA  
ERABERRITZEAK  
SABAI MODULARRA

Abitur 17-8 (SESAK)  
bordadur@telefonos.net  
Tele/Fax: 948 637 546  
Mug.: 609 477 277

### LANA

#### 301 Eskariak

**Garraiolari** kameta duen 21 urteko mutil batek inguruan

**Baztango**  
promoción inmobiliaria

ONDASUN BATEN BALIO ZENBATEKOA DEN JAKIN NAHI DUZU. **DEITU**, AHOLKUA EMANEN DIZUGU DOAN

**SALMENTA:**  
BERA: Etxe egin berriak, igogailuarekin.  
BERA: Bigarren eskuko 2 eta 3 logelako pisuak.  
BERA: Lokalak salgai eta alokairuan.  
ARANTZA, DONEZTEBE, ELIZONDO eta ERRATZU pisuak eta baserriak.

**LUR EREMUAK:**  
BERA, SUNBILLA eta ERRATZU neurri desberdinetakoak.

**ALOKAIRUAK:**  
BERA: Pisua 3 logelakoa, igogailuarekin.

**ESKARI HANDIA IZATEAGATIK,  
ETXE ZAHARRAK, PISUAK, BASERRIAK,  
BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU.**

Kattonberri karrrika, 4  
31780 Bera. Navarra

Tel/Fax 948 630552  
info@baztango.com  
www.baztango.com

**ARANTZA**  
Zurgindegia.....

Klase guztietako zurgin lanak  
Eskatu surretakoak konpromisoarik gabe

Juan Ripoll Errentador  
Tel. 948 634 948 - 647 819 344  
Gorritze - ARANTZA

kamioigidari lan eginen lu-ke. ☎ 630 873505.

**Neska** bat eskaintzen da edozein lanetan aritzeko. ☎669 180779.

Zonaldeko **bi** lagunek itxi-turak egiten, sasiak garbitzen eta edozein lanetan ari-tuko lirake. Esperientzia-dunak. ☎ 686 495978.

Udan, herriko bestetan **os-tatuan** lan egiten nuke. ☎650 948330.

40 urteko **emakumea** es-kaintzen da orduka garbiket-a lanetan aritzeko eta hau-rrak zaintzeko. ☎628800865.

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**BERA.** Larungo benta batean 6 hilabeterako lana es-kaintzen da neska eta mutil batentzat. Frantsesa pixka bat jakinez gero hobe, bai-na ez da nahitaezkoa. ☎948

630357.

**LEKARoz.** Jatetxe batean lagun bat behar da egunero lan egiteko. ☎619 829289 (Amaia).

**BERA.** Emakumea edo neska behar da 4 eta 6 urteko bi haur zaintzeko, astearte-tik ortziralera, arratsaldez. ☎609 708797.

**ETXALAR.** Herriko Ostatu-an pertsona bat behar da fre-gaderan lan egiteko, den-bora luze baterako. Baldin-tzak onak. ☎ 667 639215/ 948 635450.

**DONEZTEBE.** Estetika zen-tro batean lan egiteko perso-na behar da. ☎ 666 394193.

**ARESO.** Alpa Aluminio lante-gian langileak behar dira. ☎ 948510711 (Alvaro Gaspar)

**Kontsumo teknikari** lane-rako postua eskaintzen du Gazte Kontseiluak. 4 ordu-ko lana, hasiera batean aben-dua bitarte. Interesatuak bi-dali curriculum *gazte-ko* @pangea.org helbidera.

### MOTORRA

#### 501 Salerosketak

**Volkswagen Transporter**





**VENTANAS ARAMBURU**  
Ongizate termiko eta akustikoa  
Aluminioa egur koloretan

Gabiria, 42 IRUN  
Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11

**TALLERES SANTESTEBAN**  
948 450282 • DONEZTEBE

**KOTXE IA BERRIETAN  
ESKAINZA ZABALA  
(6-12 hilabeteak)**

Clio, Modus, Kangoo, Megane,  
Megane Grand Tour, Scenic,  
Laguna, Laguna Grand Tour,  
Espace.

**BIGARREN ESKUKOAK**

Opel Astra 2.0, Laguna Grand Tour  
2.2 DCI, Kangoo 1.9 D 2001koa  
(gibealeko aldean itxia), Laguna 2.2 DCI  
150 CV, Citroen C5 2.0 HDI,  
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV.

furgoneta salgai, 2002koa,  
2.5 TDI, 8 plazakoa. ☎620  
749384.

**Quad Yamaha Banshee**  
salgai, 350 cc, 2002koa, ex-  
tra ugariekin. Hagitz gutti  
erabilia, egoera hagitz one-  
an. ☎ 687 052867.

**Golf TDI 115 CV** salgai, 6  
urtekoa eta 120.000 kilo-  
metro. Klimatizadorea, alu-  
miniozko llantak, ordena-  
gailua... ☎ 680 343337.

**Renault Modus** autoa sal-  
gai, 3 urte egin beharrak.  
55.000 km. ☎ 690 385181  
(21:00etatik aitzinera).

**Citroen Sxara diesel 2.0  
HDI** autoa salgai, 90 CV,  
2002koa eta egoera one-  
an. ☎ 620 884046.

**Audi A3** autoa salgai, 9.000  
euro. Gasolina. ☎ 635  
696688.

**BMW 320D** autoa salgai,

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**  
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara  
3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Opel  
Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-  
5 atekoa eta Renault Laguna.  
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

2000an erosia. Egoera one-  
an. ☎ 948 634077.

**Golf TDI 115** autoa salgai,  
6 urte eta 120.000 kilome-  
tro. Klimatizadorea, alumi-  
niozko llantak, ordenagai-  
lua... ☎ 680 343337.

**Golf 1.9TD** autoa salgai, se-  
ri 3, NA-AL. Egoera onean.  
☎ 627 309695.

**MOTORRA**  
**502 Tailerrak**



**ANIMALIAK**  
**602 Salerosketak**

**ETXALAR.** 20 erle saltze-  
ko, 'Perfección'. ☎ 948  
635174.

**20 ardiren eskubideak** sal-  
gai. ☎ 948 634170.

**Bi ahari mutur gorri** salgai,  
bat adarrarekin eta bertzea  
adarrigabe. ☎ 948451696.

**21 ardiren eskubideak** sal-

gai. ☎ 948 634260.

**DENETARIK**  
**702 Salerosketak**

**Sime markako kaldera** sal-  
gai. ☎620 254203 (goizez)

**Yamaha markako bozgo-  
railua** salgai. ☎699 122815.  
(20:00etatik aitzinera).

Etxe zahar baten **harri pi-  
katua** salgai, kabezala 2,70.  
☎948 635188.

Rifle batentzako **Swrovski**  
batidako bisore berria beza-  
lakoa salgai, L' 25-4x24 LG  
modeloia, leku zikinetan eta  
ilunetan erabiltzeko apropo-  
sa. ☎607 457004 (Dani).

**DENETARIK**  
**703 Bertzelakoak**

**Dizdira** hirukotea. Ezkon-  
gaientzako opari paregabea.  
Euskal kantuak eta bertso  
personalizatuak eskaintzen  
dira. ☎626 511353.

**HARREMANAK**  
**801 Agurrak**

**Ana Mitxelena Irigoien**, Ur-  
dazubiko neska politenak ur-  
teak bete ditu. Zorionak! Irun-  
go izeba Ana eta osaba Be-  
nitoren partetik. Egun ona  
pasa familia eta lagunekin.

**Josu Daka.** Sexu harrema-  
nak doan. 29 urte, 24 ordu  
eta 25 cm. Ausartu eta au-  
kera maiatzaren 15a bitarte.  
☎618 963427/ 626 313162



**Skunk Funk**  
**Billabong**

**Dragon Oxbow**

**Quick silver**  
**Rip Curl**

**Animal**

**Ibardin • 948 630 716**

**MERKATU TTIKIA**

zure iragarkia 3 tokitan  
Aldizkaria  
+  
Telebista  
+  
Internet

**8€**

ttipi-ttapa • 948 635 458 • www.ttipi.net

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**IRATI LAZKANOTEGI MATXIAREN-NAK** apirilaren 11n 5 urte eginen ditu. Zorionak etxeko printzesari Andoni, Aitor, ata eta amaren partetik.



**NAHIA SARRIAK** 4 urte bete ditu apirilaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat gure printzesari ata eta amaren partetik.



Hendaia printzesari: zorionak **NAHIA** zure lagunaren partetik: Olaia, Mikel eta Nahikari. Muxu-kuak eta egun polit bat pasa dezazula.



**CASTORA AGESTA** etxalartarrak 96 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak familia guztiaren partetik.



**ISABEL BAZTERRIKA AGESTAK** 56 urte bete ditu apirilaren 10ean. Zorionak Sunbilla-llako Pisaneko-bordako familia- ren partetik.



**JOSE BENARDO BAZTERRIKA AGESTAK** 55 urte beteko ditu apirilaren 19an. Zorionak emaztea, seme-alaba eta Josebaren partetik. Afari baten esperoan gaude.



**ANDONI LATORRE** etxalartarrak urtea bete du apirilaren 8an. Zorionak Asier, ama eta aitaren partetik. Auniz urtez xagutxo.



**Gure IGANTZIARRAK** 2 urte bete ditu apirilaren 1ean. Zorionak eta muxu aunitz tia Tiera, tio Bernardino eta Maite Legasaren partetik.



**OIHANALARRAIDE OLAZAR** elgorriarrak apirilaren 2an 7 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik, bereziki Endikaren partetik.



**ANE** eta **OLATZ**ek 8 urte bete dituzte apirilaren 2an eta 3an. **ZORIONAK DANTZARIAK!!!**



**OLATZ ETXEPARE ELRIO** beratarrak 8 urte bete ditu apirilaren 3an. Zorionak Jone, Izaro eta familiaren partetik. Muxu haundia gure klarinetistaren-tzat!



**IRATXE FAGOAGA ARIZTEGI** ituren-darrak 8 urte bete ditu apirilaren 12an. Zorionak aita, ama eta Gurutzeren partetik.



**GANIX** lesakarrak urteak bete ditu apirilaren 5ean. Zorionak eta 8 muxu zure bi lagunren partetik.



**ENDIKA TELLETXEA** apirilaren 7an 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik, bereziki aitona-amonen partetik. Segi orain bezain txinboa.



**ASIER ZELAIETA TOMASENA** etxalartarrak apirilaren 19an 15 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama eta Amaia- ren partetik. Muxu aunitz fa- miliaren partetik



**XABIER TELLETXEA** IRTZOKI etxalartarrak 5 urte bete ditu apirilaren 18an. Zorionak txapel-dun Jani- re, ata, ama, amaxi eta fa- miliaren partetik.



**ANE IRIGOIEN IBAÑEZ** sunbildarrak 2 urte bete ditu apirilaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik, bereziki Egoien partetik.



**EGOI IRIGOIEN ARRETXEA** sunbildarrak urtea beteko du apirilaren 19an. Zorionak eta muxu haundi zuretzat familia guztiaren partetik.



Sunbilla **EGOIK** apirilaren 19an urtea beteko du. Zorionak June, Jani- re, Ibai, Oier, Iradi, Maialen, Ekiñe, Oihan, Xuban, Eneit eta Ekaiz.



Berako **JAIONE** eta **UXUE** ama- alabek apirilaren 4an eta 19an 32 eta 3 urte beteko di- tuzte. Zorionak familiaren partetik.




**GANIX** eta **OIHANA ARRUTIK** 2 eta 8 urte beteko dituzte apirilaren 5ean eta 7an. Zorionak gure pirata eta sorgintxoari, aita, ama, amaxi eta ataxi.



Aurtizko **ANDONI MINDEGIA ETXEPAREK** 8 urte bete ditu apirilaren 2an. Bi muxu haundi, Lesakako izeba eta osaben partetik.



**OLATZ IRIARTE ITURZAETAK** urteak bete ditu apirilaren 13an. Auniz urtez eta muxu haundi bat Eneko eta Anttonen partetik.



**LEIRE RUIZ ALZUGUREN** beratarrak 4 urte bete ditu apirilaren 16an. Zorionak eta muxu haundia familia guztiaren partetik, bereziki Maialen- en partetik.



Elizondoko **NAHIKARI AMI- ANOK** 18 urte bete ditu martxoaren 31n. Auniz urtez eta muxu haundi bat zure lagunren partetik. Ongi pasa eguna.



Goizuetako **OIER MIRANDAK** 4 urte bete ditu apirilaren 12an. Zorionak Iker, ata eta amaren partetik. Muxu haundi bat potokito.



**IBAI GALLARDON** etxalartarrak apirilaren 6an 14 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



Zorionak Baztango pilotari bikoteari. Muxu haundi bat Ibon 8 urte bete dituzulako, familia guztiaren partetik.



Zubietako **NAROA SANTESTEBAN OTXANDORENAK** 5 urte bete ditu apirilaren 15ean. Zorionak familiaren partetik, bereziki, Gara- zi, Uxue eta Ikerren partetik.



Arantzako **XUBAN TABERNA MUTUBERRIAK** urtea bete du apirilaren 10ean. Zorionak eta muxu bat familiaREN partetik, eta bereziki Ei- derren partetik.



Ezkurrako **JUANIK** urteak bete ditu apirilaren 8an. Zorionak eta muxu asko denen partetik, bereziki ilo- ben partetik.



**MARKEL ETXARTE LEIZAK** 4 urte bete ditu apirilaren 11n. Zorionak eta muxu pila pila bat, Unax, Luken, ata, amatto eta familia guztiaren partetik.



Azpilketako **URTXUBIK** apirilaren 9an 23 urte bete ditu. Ea oraingoan nork irabazten duen txupitok edaten zuek edo «burra p.-k». Auniz urtez.



**DENIS LEIZA PEIREIRA** lesakarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 18an. Zorionak ama, aita, Unai eta familia guztiaren partetik. Muxuak.



**OIHANA SARRAITEA JABALERAK** 6 urte beteko ditu apirilaren 21ean. Zorionak printzesa eta sei muxu attatto, amatto eta Zuriñeren partetik.



Etxalarko **MIREN LASAGA** eta **JOSEBA IRAZOKIK** 12 eta 10 urte beteko dituzte apirilaren 11n eta maiatzaren 1ean. Zorionak eta mila muxu familia guztiaren partetik, bereziki Ariz eta Landarren partetik. Zorionak!



Elkoko (Nevada) **KYLE OWSLEY IGOAK** apirilaren 20an 5 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Irungo **AIMAR ETXEBERRIA ZUBALDEAK** apirilaren 27an urtea beteko du. Zorionak eta mila muxu potolo. Irungo eta Zubietako familia.



Gure **AIMARTXOK** urtea beteko du apirilaren 27an. Zorionak Xune, Unai, Mirari eta Joneren partetik. Ea noiz hasten zaren patxo handiak ematen



Zorionak Donamariako gazte- txeko lehendakariari. Ari, ari, ari **PATZIKU** lehendakari!!! Muxu bat!



Etxalarko **ARIZ IRAZOKIK** 7 urte beteko ditu apirilaren 21ean. Zorionak gure multikoari familiaren partetik, bereziki Joseba, Miren eta Landarren partetik.



**NAROA SANTESTEBAN OTXANDORENA** zubietarrak 5 urte bete ditu apirilaren 15ean. Zorionak Esther eta familiaren partetik. A, eta bere osabari ere bai.



**ANTZERKI****EMANALDIA****BERAN**

eguna: **APIRILAREN 21 a.**  
larunbata

ordua: **22:00etan**

tokia: **Kultur Etxean**

sarrera: **6 €**

(egun bereko 21:00etatik aitzinera salgai)



Antolatzailea:

Berako  
Euskara  
Batzordea

Laguntzaileak:



## SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA



**AMAIYR**  
vegasa

**BISITA EZAZU**

Modelo berriak:

rustikoak • modernoak • praktikoak  
Entzimerak: silestone • granito • corian ...  
Elektrogailu nazionalak eta alemanak

Rosa Seminario 13 • Tel.: 948 450 400 • DONEZTEBE





apirilak **21**

# BAZTANROCKGAUA

KASKEZURUFESTUEKNAMELESSSABAI ZAHAR

20:00 5€ 01:00etatik aurrera 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

apirilak **28**

# LURDJOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

apirilak **30**

# LURDJOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

maiatzak **5**

# LURDJOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

maiatzak **12**

# ZOZKETARENGAUA

ZOZKETA 02:30etan ospatuko da eta sariduna atera arte!

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

# ZOZKETA

"Ibiza" baten zozketa. Eskura itzazu zure boletoak 3:00ak baino lehen iristean. Astebururo zure sarrerakin batera. (\*)

